

Paco Ibañez 'iraultzaile'

Eskoriatzako kiroldgia bete zuen
KULTURA, 24



Jaitsiera postuetan da UDA, Lesakan galduta

Mondrak, berriz, matematikoki lortu du mailari eustea
KIROLA, 18

Asstrio Bergaran

Disko berria aurkeztu zuten
KULTURA, 25



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko apirilaren 18a • 2. urtea • 53. zenbakia • 0,90 euro

EAJ-EA garaile Debagoiengan, zortzi puntu eta ia 7.000 boto galdu arren

EAJ-EAk eta PPK indarra galdu dute orain dela lau urteko hauteskundeekiko eta gainerakoek gora egin dute

PARTE-HARTZEAK BEHERA

Orain dela lau urte baino sei mila boto gutxiago zenbatu ziren atzo

PSE-EE ETA EHAK GORA

Nabarmentzekoa da sozialistek eta EHAK alderdiak izan duten gorakada

EZKER BATUA ANTZERA


Ezker Batuak eutsi egin dio bototan, parte-hartzea txikiagoa izan arren

ARALAR TXUKUN

Aralar lehenengo aldiz aurkeztu da hauteskunde hauetara 2.553 boto lortuz


NORMALTASUNA NAGUSI

Bozketaren eguna, oro har, normaltasunez igaro zen




Iraultza Gasteizen

PSE-EE eta PP gehiago izango dira Legebiltzarrean, EAJ-EA eta EB baino (33-32). 2001ean, 36-32 zen, hirukoaren alde.



LEGEBILTZARRA 2005



LEGEBILTZARRA 2001

Gipuzkoa

Errolda	580.909
Absten.	177.398 %31,30
EAJ-EA	147.498 %25,4 10 aulki
PSE-EE	78.088 %13,5 5 aulki
EHAK	70.577 %12,2 5 aulki
PP	51.163 %8,8 3 aulki
EB	20.278 %3,5 1 aulki
ARALAR	15.273 %2,6 1 aulki
UA	133 %0,02 0 aulki

Bizkaia

Errolda	970.923
Absten.	295.358 %30,3
EAJ-EA	264.774 %27,3 11 aulki
PSE-EE	151.347 %15,6 6 aulki
PP	113.867 %11,7 5 aulki
EHAK	65.431 %6,7 2 aulki
EB	36.258 %3,7 1 aulki
ARALAR	10.187 %1,0 0 aulki
UA	259 %0,03 0 aulki

Araba

Errolda	244.484
Absten.	73.875 %30,22
EAJ-EA	51.601 %21,1 8 aulki
PP	43.765 %17,9 7 aulki
PSE-EE	42.994 %17,6 7 aulki
EHAK	14.180 %5,8 2 aulki
EB	8.395 %3,4 1 aulki
UA	3.740 %1,5 0 aulki
ARALAR	2.541 %1,0 0 aulki

EAE

Errolda	1.799.464
Absten.	546.631 %30,4
EAJ-EA	463.873 %25,8 29 aulki
PSE-EE	272.429 %15,2 18 aulki
PP	208.795 %11,6 15 aulki
EHAK	150.188 %8,4 9 aulki
EB	64.931 %3,6 3 aulki
ARALAR	28.001 %1,6 1 aulki
UA	4.132 %0,2 0 aulki

Erraz irabazi zuen

Olaizola I.ak 22-7 irabazizion Lasari 22



Aretxabaleta: tranbia ez da pasatuko Durana kaletik, Udalak ibilbidea aldatu baitu 10

grupo amuebladora
mondragonesa

HEMEN BADUZU NON AUKERATU!

SOFALEKU
Zigarrola 1 (1go pabilioia)
Arrasate
■ Tel. eta faxa: 943 79 14 89



GEUREAN

- Ikasketa amaierako ehunka diploma banatu ditu MUK asteburuan Arrasaten eta Oñatin | 10
- 50 bat erretiratut hartu zuten parte zapatuan, Kilometroen aldeko mendi martxan | 11

Emakumeen Mundu Martxa aurkeztuko du Euskal Herriko taldeak Arrasaten, eguaztenean | 13

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2005



GORKA ETXABE

Orain dela lau urte baino parte-hartze txikiagoa izan da aurten Debagoienean, baina, hala ere, txukuna izan da (%70,5).

DEBAGOIENA, HERRIZ HERRI | EAJ-EA NAGUSI HERRI GUZTIETAN, INDARRA GALDU ARREN, ETA EHAK BIGARREN

Koalizioa irabazle, komunistak bikain eta sozialistak ere gora

Koalizioak indarra galdu arren, EHAKren botoak ia bikoiztu ditu

Eneko Azkarate


EAJ-EA izan da Debagoieneko irabazlea. Hori ezin da ukatu; izan ere, bigarren indarrari (EHAK) ateratzen dizkio 7.213 boto. Hala ere, orain dela lau urteko hautes-

kundeekiko indarra galdu du, 9 puntu galdu dituelako. Azpimarratzekoa da, bestalde, EHAK alderdiak lortu dituela EHk 2001ean baino 167 boto gehiago, eta sozialistek ere, orduan baino 44 boto gehiago, parte-hartzea orduan baino 9 puntu txikiagoa izan arren.

PPk nabarmen egin du behe-
ra, ia erdia galduta, eta ondo eutsi dio EBk, bototan zerbait galdu arren. PPK eta Aralarrek (2.553 boto lortu ditu) antzeko indarra lortu dute (%6,8 eta 6,7) eta EBk botoen %6 lortu du (2.282), orain dela lau urte baino 135 gutxiago.

Debagoieneko legebiltzarra

Legebiltzarra ibarreko botoekin aukeratuko balitz, EAJ-EAk antzeko emaitzak izango lituzke; baina EHAK, ez PSE-EE, izango litzateke bigarren, 18 eserlekurekin, eta PSE-EE hirugarren. Aralarrek bost eserleku lituzke, bat beharrean; PPK, berdin. EBk lau izango lituzke.



Debagoiena



%42,2
(15.872)

Orain dela lau urte baino 9 puntu gutxiago (%51,2).



%23*
(8.669)

2001ean EHk baino hiru puntu eta erdi gehiago (%19,5).



%13,7
(5.156)

Orain dela lau urte baino bi puntu gehiago (%11,6).



%6,8
(2.583)

Orain dela lau urte baino lau puntu gutxiago (%11,1).



%6,7**
(2.553)

Lehenengo aldiz aurkeztu dira hauteskunde hauetara.




%6
(2.282)

Orain dela lau urte baino puntu erdi gehiago (%5,5).

*EHAK parekatu dugu EHrekin. **2001ean Aralar ez zen aurkeztu.

Emaitzak herriz herri


• ARRASATE



Errolda: 19.313 / Abstentzioa: 6.198 (%32,1)

EHAK BAKARRIK GORA. Bigarren alderdi bozkatuena izan da EHAK, eta bera izan da botoak irabazi dituen bakarra; gainerako guztiek galdu egin dituzte. Aralarrek botoen ia %5 lortu du.


• BERGARA



Errolda: 12.445 / Abstentzioa: 3.710 (%29,81)

EAJ-EA BEHERA. Bozkatuena izan da EAJ-EA, baina erdiak ere ez ditu lortu. EHAKek ere EHk duela lau urte baino gutxiago lortu ditu eta PSE-EEK gehiago. EB eta PP jaitsi egin dira. Aralar laugarren indarra izan da.


• OÑATI



Errolda: 8.902 / Abstentzioa: 2.322 (%26,08)

EAJ ETA EHAK NAGUSI. EAJ-EA koalizioak lortu ditu boto gehien, baina duela lau urte baino dezente gutxiago. EHAK bigarren eta Aralar hirugarren izan dira. PSE-EEK irabazi egin ditu botoak eta EBk eta PPK galdu.


• ARETXABAETA



Errolda: 5.310 / Abstentzioa: 1.452 (%27,5)

EAJ-EA, BEHERA. Oro har EAEn gertatutakoa errepikatu da Aretxabaetan: EAJ-EAk irabazi du, baina dezente egin du behera. EHAK eta PSE-EE igo dira. Aralarrek behera egin du udal hauteskundearen aldean.


• ESKORIATZA



Errolda: 3.301 / Abstentzioa: 1.101 (%33,3)

EAJ-EA ETA EHAK. EAJ-EAk irabazi du, baina nabarmen egin du behera. Jaitsi den beste alderdia PP da. EHAKek izan du hazkunde handiena. Abstentzioa ibarreko altuena izan da: erroldatuen herena.


• ANTZUOLA



Errolda: 1.710 / Abstentzioa: 386 (%22,5)

EAJ-EA JAITSI. Aurreko aldirian ez bezala, orain EAJ-EA botoen %50etik behera geratu da, nahiz eta irabazi. EHAK bigarren indar bezala finkatzen da. PSE-EEK ere gora egin du.


• ARAMAIO



Errolda: 1.239 / Abstentzioa: 254 (%20,5)

EHAK INDARTSU. EAJ-EA koalizioak lortu du boto gehien, baina orain dela lau urte baino dezente gutxiago. EHAK alderdia, berriz, indartsu ateratu da.


• ELGETA



Errolda: 877 / Abstentzioa: 201 (%23,4)

EAJ-EA BEHERA. EAJ-EA koalizioak nabarmen egin du behera Elgetan ere. Azpimarratzekoak dira, bestalde, EHAK eta Aralarrek lortutako emaitza onak.

• LEINTZ GATZAGA



Errolda: 217 / Abstentzioa: 38 (%17,5)


EAJ-EA ETA EHAK NAGUSI. Nabarmen nagusitu da EAJ-EA koalizioa Leintz Gatzagan; baina, orain dela lau urte, botoen %54 lortu zituen, eta oraingoan, %41,12.

*EHAK parekatu dugu EHrekin. **2001ean Aralar ez zen aurkeztu.

EUSKO LEWEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2005

EMAITZAK LURRALDEKA | ARALARREK GIPUZKOAN LORTU DITU BOTO GEHIEN

Gipuzkoako lurraldean galdu du indar gehien EAJ-EA koalizioak



Aralarrek Gipuzkoan lortu ditu botorik gehienak: 15.273

M.D.


PSE-EE eta EHAK izan dira Gipuzkoan gora egin duten alderdi bakarrak. 2.000 boto gehiago lortu dituzte sozialistek, eta EHAKk EHk lortu zituen baino 1.200 boto gehiago. Hala ere, EAJ-EA koalizioa da indar politiko nagusia Gipuzkoako lurraldean, nahiz eta orain dela lau urte baino boto gutxiago lortu dituen.

PPk izandako gainbehera ere izugarria izan da: 30.000 boto gutxiago Gipuzkoan; Donostian 10.000 galdu ditu.

Bestalde, Aralarrek Gipuzkoan jasotako botoei esker lortu du eserlekua Legebiltzarrean: 15.273 boto.

Donostia

	2005	2005 (%)	2001	2001 (%)
EAJ-EA	32.767	32,3	46.244	38,4
PSE-EE	23.808	23,5	21.846	18,1
PP	22.239	21,9	32.045	26,6
EHAK*	12.750	12,6	12.426	10,3
EB	5.820	5,7	7.429	6,1
ARALAR	3.201	3,1	**	**
BESTEAK	2.494	0,6	422	0,3



Patxi Lopezen alderdiak izan du gorakadarik handiena Bizkaian

M.D.

Ia 20.000 boto irabazi ditu alderdi sozialistak Bizkaian; horien laurdena Bilbon jaso ditu Patxi Lopezen alderdiak. Hala ere, Bizkaian ere, EAJ-EA koalizioak eta PPk izan duten gainbehera da daturik aipagarriena; bien artean 134.615 boto galdu dituzte lurralde horretan.


Gauzak horrela, Bizkaian EAJ-EAk 11 eserleku, PSE-EEK 6, PPk 5, EHAKk bi eta EBk eserleku bat lortu dute.

Bilboko datuei dagokienez, Bizkaian gertatutakoaren isla

da: EAJ-EA koalizioa indar nagusi den arren, 21.000 boto galdu ditu eta PPk 24.000 boto pasatxo galdu ditu.

Bilbo

	2005	2005 (%)	2001	2001 (%)
EAJ-EA	70.723	35,9	91.639	38,8
PSE-EE	48.805	24,8	43.122	18,2
PP	46.557	23,6	71.030	30,1
EHAK*	14.408	7,3	13.852	5,8
EB	11.621	5,9	14.824	6,2
ARALAR	2.591	1,3	**	**
BESTEAK	5.751	0,8	1.546	0,6



UAK lortu dituen baino boto gehiago galdu dituzte popularrek

M.D.

PPk 18.586 boto galdu ditu Araban. Emaitza hori ez da bakarrik izan UArekin koalizioan ez delako joan; izan ere, Arabako alderdiak, Unidad Alavesak, 3.740 boto lortu ditu atzoko hauteskundeetan; hortaz, kontuak ez ditu zuzen egin Alderdi Popularrak Araban.

Bestalde, Araban ere, EHAK eta PSE-EE izan dira gora egin duten alderdiak. Gasteizen, PSE-EEK 3.000 boto gehiago zenbatu ditu, eta EHAKk, EHk duela lau urte izan zituen bai-

no ia 1.500 boto gehiago zenbatu ditu. Beste alderdiei dagokienez, EAJ-EAk Araban ere behera egin du nabarmen.

Gasteiz

	2005	2005 (%)	2001	2001 (%)
EAJ-EA	32.352	25,8	41.521	29,1
PSE-EE	35.892	28,7	32.882	23,0
PP	35.218	28,1	50.248	35,2
EHAK*	8.712	6,9	7.363	5,1
EB	6.674	5,3	9.503	6,6
ARALAR	1.750	1,4	**	**
UA	3.181	2,5	1.017**	0,7**

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2005

POLITIKOEN IRITZIA | DUELA LAU URTE BAINO 6.699 BOTO GUTXIAGO ESKURATU DITU KOALIZIOAK

EAJ-EA koalizioaren jaitsiera azpimarratu dute politikoeak

EHAkren arrakasta aipatu dute; baina PSE-EEK etorkizunean izango duen garrantzia ere

AG

ANDONI GARTZIA | EAJ-EA
"Irabazi arren, ez ditugu esperotako emaitzak lortu"

"EAJ-EA izan da lehen alderdia, berriro, baina egia da ez ditugula lortu aurreikusitako emaitzak. PP jaitsi egin da, uste bezala, eta beste alderdi nagusiek igo egin dira. Ezker abertzalea asko igo da baina, hala ere, uste dut PSOE alderdiak duela gakoa etorkizuna eztabaidatzeko".

JOSE LUIS ELKORO | EHAk
"Alderdi indartsua garelara erakutsi dugu"

"Lehenbizi, eskerrak EHAkri hauteskundeetan lekua egin digutelako. Ezker abertzalea desagertarazteko proiektuak porrot egin du berriz, eta alderdi indartsua garelara erakutsi dugu. Etorkizunean alderdia legeztatzea da gure helburuetako bat. Era berean, Euskal Herriko arazoak konpontzeko lanean jarraituko dugu, bake eta autodeterminazioaren bidean".

PACO GARCIA | PSE-EE
"Argi ikusi da Ibarretxe Planak huts egin duela"

"Hasteko, herritarrek irabazi dute. Bestetik, eserleku gehiago lortu dituen alderdi bakarra izan da PSE-EE, eta hori oso



Andoni Gartzia (EAJ-EA).



Jose Luis Elkoro (EHAk).



Paco Garcia (PSE-EE).



Xabier Sarasua (Aralar).



Itziar Lamarain (PP).



Ander Rodriguez (EB-Berdeak).

positiboa da. Argi ikusi dugu Ibarretxe Planak huts egin duela eta EAJ-EA koalizioak ere bai. Gaurtik aurrera, ikusiko dugu nola osatzen den Gasteizko gobernua, koalizioa oso egonera zailean dago eta".

XABIER SARASUA | ARALAR
"Zailtasunen gaintetik lortu dugu gure helburua"

"Sekulako arrakasta izan da parlamentuan sartzea. Kanpainan boikot informatiboa egin digute; zailtasunen gaintetik lortu dugu gure helburua. Bototan behera egin dugu baina bide politiko hutsetatik eskubide guz-

tien defentsan jarraituko du ezker abertzaleak. Guretzat, Debagoienean dugun indarra klabea izan da".

ITZIAR LAMARAIN | PP
"Bihotzez eskerrak ibarretxean bozkatu gaituztenei"

Pozik gaude Debagoienean laugarren indarra garelako. Gure botoari eutsi diogu eta eusten jarraituko diogu, kontuan izanda, batik bat, EAJ-EAk indar handia izan duela beti. Bestalde, inkestek 12-13 eserleku lortuko genituela bazioten ere, 15 lortu izana ez dago batera gaizki. EAJ-EAk sekulako kolpea

hartu du eta PSE-EE, berriz, zoriondu beharra dago".

ANDER RODRIGUEZ | EB-BERDEAK
"Arrasate gune beltza izan da guretzat"

"Ibarrean mailari eutsi diogu. Datuak herriz herri aztertuz gero, Eskoriatzan gora egin duen alderdi bakarra izan gara. Arrasate, berriz, gune beltza izan da; indarra galdu dugu eta orain hausnarketa egin beharko dugu. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, ez ditugu espero genituen emaitzak izan, baina gure lekua kontsolidatu dugu".



Analisia

Mikel Irizar

Lanera

Ez genuen sorpresarik handirik espero, baina egon da. Ze, sorpresa beste izenik ez du merezi EHAkren emaitzak. Deigarria izango zen errepikatzea orain lau urteko EHren emaitza, gehienok uste genuen galeraren bat izango zela. Baina ez dio eutsi bakarrik egin, orduan baino boto gehiago lortu ditu eta, ondorioz, bi eserleku gehiago.

Are deigarriago izan da EHAkren emaitza ia osorik EAJ-EAren lepotik etortzea. Bazirudien Ibarretxeren lanak gutxienez lehengoari eusteko balioko ziola eta, zerbait jasotzekotan, saria jasoko zuela. Baina ez, duela lau urte jaso zuen boto andanatik zati handia bueltan joan zaio EHAkri.

PSE-EE nagusitu egin zaio PPri eta bien baturak eserleku bat gehiago eman du. Hala ere, ez da nahikoa aldaketa eragiteko, Patxiren ahalegin 'zibilizatu' Ajuria Enea eskuratzeko ezerezean gelditu da.

EB-Berdeak eta Aralarren emaitzak txukunak dira, baina ez dute giltzarik. Eserlekuen pisua baino areago, bien jarra izan daiteke eragingarri, gaurtik aurrera.

Izan ere, lan galanta gelditzen zaie denei. Herritarrok ezin dugu gehiago egin; orain hautetsien txanda da. Jar dezatela helburu gehiengo balekoa, 2/3ekoa edo %60koa. Adostu dezatela egutegi bat, orain hau eta etorkizunean hura. Orduan, sar daitezela konklabean guttiak, eta ez daitezela irten handik *fumata bianca* lortu arte. Seinale izango da: *habemus pacem*.

DEBAGOIENENKO LEGEBILTZARKIDEAK



BLANCA RONCAL | PSE-EE

"Debagoieneko osasun arloa hobetzeko egingo dugu lan"

Nafarroako Auritz herrian jaioa, egun Gasteizen bizi da. 54 urte ditu, ezkontuta dago eta hiru alaba ditu. Medikuntza ikasketak egin zituen Iruñean, eta gaur egun zinegotzia da Arrasateko udalean. Oraingoa bere bigarren legealdia izango da Gasteizko legebiltzarrean. Zailtasunen artean irakurtzea, musika entzutea eta lorezaintza aipatzen ditu. Osasun gaiez arduratu da bukatu berri dugun legealdian: "Profesionalki zein politikoki ezagutzen dudana alorra da", aipatu digu. "Debagoienak osasun zerbitzu hobea merezi du eta horren alde egingo dugu lan".



RAFAEL URIBARREN | EAJ-EA

"Ingurumen eta nekazaritza arloetan jarraitu nahi dut"

Arrasatearra jaiotzez, albaiari ikasketak egin zituen Zaragozan. Azken 20 urteotan Anoetan bizi da eta 12 urte eman ditu zinegotzi lanetan. Egund 52 urte ditu, ezkontuta dago eta bi seme alaba ditu. 1995az geroztik da legebiltzarkidea. GBBko kidea ere bada. Azpiegiturak, ingurumena, lurralde antolamendua eta etxebizitza alorretaz arduratu da, eta azken legegintzaldian lan batzorde honetako presidente izan da. Oraingoa laugarren legealdia izango du. "Alor beretan lanean jarraitu gura nuke. Baserritar mundua oso gertukoa dut. 10 urte eman nituen albaiari lanetan", dio.

MAHAIRIK MAHAI | EGUNEAN BARRENA GORABEHERA GUTXI IZAN ZIREN

Normaltasuna nagusi atzoko bozketa egunean

ERREPUBLIKARRA
Oñatiko gizon bat errepublika garaiko agiri batekin joan zen botoa ematera atzoko hauteskundeetan Ikastolako hauteslekuan

EHNAREKIN
GORABEHERAK
PPko interbentore batek, San Andres auzoko hauteslekuan, mahaiko presidentearekin tirabirak izan dituen herritar batek EHNarekin botoa eman zuelako

SALAKETA TELEBISTA
KAMEREN AURREAN
Hauteskundeak ez direla demokratikoak izan salatu zuten gazte batzuek GOITBko gaueko zuzeneko saio berezian.

Ustekabean sartu
ziren platora eta saioa eten egin zuten



ERLIJIOSOAK HAUTESTONTZIETAN. Mahaiaren bi aldeetan topo egin zuten Iñaki Beristain frantziskotarrak eta moja batek. Irudi bitxia ikusi genuen: lehenengoa, mahaiko presidente lanetan, eta bigarrena, berriz, bere boto eskubideaz baliatzen.



UMEAK ERE BOTOA EMATEN. Oraindik botoa emateko adinik izan ez arren, Aramaioko mutiko honi botoa ematea zer den ikusteko aukera eman dio amak; urte batzuk barru berak aukeratu beharko du zein alderdiri eman bere botoa.



GOITB LEHENDAKARITZAN. GOITBko Goiatz Arana kazetaria eta Andoni Goiti kameralaria, Lehendakaritzan. Lehen datuak eta iritziak jaso zituzten Gasteizen.



KARTELAK NONAHI. Domekan bertan ere kanpainarekin jarraitu zuen hainbatek, eta Elgetan Ertzaintzaren auto baten hainbat alderditako kartelak itsatsita azaldu ziren.



BOTO ZENBAKETA. Hauteslekuak itxi bezain pronto, boto zenbaketari ekin zioten. Lana azkar egin zuten Debagoienean; 22:00ak alderako datu guztiak genituen.

• ZER ESKATUKO ZENIOKE LEHENDAKARI BERRIARI?



MARIA ARABAOLAZA | ELGETA

Arazo ekonomikoak ditugunondako irtenbide bat aurkitzea. Ez dakit nork irabaziko duen, baina nik beti ekartzen dut nire bozka.



ALICIA VAZQUEZ | BERGARA

Behar duguna eskatuko nioke: bakea, lasaitasuna eta guztiondako ongizatea. Horixe da garrantzitsuena, nire ustez.



CAMILO NOVOA | BERGARA

Nik diot bakea behar dugula lehenengo, lasaitasunean bizitzeko eta ongizatea guztiondako, den-denok ondo bizi ahal izateko.



TERE MANTECON | ELGETA

Bakea eta lana dira lehentasuna gaur egun. Nik hori uste dut, behintzat. Ez dakit nork irabaziko duen, ez dut argi ikusten.



XABIER EGUREN | BERGARA

Lehendakariari zer? Beteko due la esan duen hori bete dezala. Hitza bete dezala, horixe eskatuko nioke aukera izango banu.



MARTA GONZALEZ | BERGARA

Ondo ordaindutako lana, etxebizitzaren gaia konpondu dezala eta gazte eta helduendako tratu hobea eskatuko nioke.



INAZIO MURGIZU | BERGARA

Zerbait zehatza? Erretiratu eta gutxitu fisikoendako kaleak txukundu ditzala. Bestela, orokorrean, agindutakoa bete dezala.



ANA Mª ARRIETA | ELGETA

Elkarrizketa ezinbestekoa dugu; denon artekoa, gainera. Nire ustez, EAJ-EAK irabaziko ditu hauteskunde hauek.



MARIA JESUS GUERRERO | BERGARA

Lehendakariari eskatuko nioke errespetu gaitzala guztiok era berean, euskaldunak eta ez euskaldunak; hori eskatuko nioke.

BLOGS & BEERS | EMAITZAK PANTAILA ERRALDOIAN

Hauteskunde gau berezia Elgetan

Boto kontaketa pantaila handi batean jarraitu zuten Elgetako Espaloian elkartutako herritarrek

Elgeta eta hauteskunde gaua aukeratu zituzten euskal blogariak euren lehen topaketa egiteko

Larraitz Zeberio

Iluntzeko 8etan hasi ziren Elgetako Espaloia Kafe Antzokian boto kontaketa jarraitzen. Pantaila handi baten bidez bertaratutako herritarrek emaitzen zenbaketa zuzenean jarraitzeko aukera izan zuten. GOITB eta ETB-1 tartekatu ziren pantaila erraldoian hauteskunde gauean.

Aukera politiko batzuen eta besteen emaitzak ezagutu ahala giroa berotzen joan zen Espaloian, gehienbat boto zenbaketa Interneten bidez ere jarraitu zuten 22 blogarien artean.

EUSKAL BLOGOSFERA

Hauteskunde gaua eta Elgetako Espaloia aukeratu zituzten euskal blogariak euren lehenengo Blogs & Beers topaketa egiteko.

Guztira, 22 blogari hurbildu ziren Elgetara gaueko ordu txikietaraino ordenagailuak konektatu eta hauteskundeetako emaitzak zuzenean jarraitzeko, beste-

ak beste. Askok ez zuten elkar ezagutzen eta aukera polita izan zen blogak gomendatu, programak pasatu eta esperientzia pertsonalak trukatzeko.

Mungia, Bilbo, Eibar, Arrasate, Irun, Lekeitio, Elorrio, Galdakao, Elgoibar eta Gasteiztik etorritako blogariak elkartu ziren Espaloian. Tartean, Eibarko blogari eta *...eta kitto!* aldizkariko kazetaria, bertatik artikulua idatzi eta erredakziora bidali zuena.

BEHIN BETIKO EMAITZAK

Espaloian ere 22:00ak pasatxo zirenean jakin zituzten behin



AINZANE AGIRRE

Espaloian batutako blogariak Internet bidez ere jarraitu zuten boto zenbaketa.

betiko emaitzak zeintzuk ziren. Interes handiz jarraitu ziren datuok, uste baino lehen iritsitakoak, bestalde.

BLOGEN EZTANDA

Hauteskunde gauean lortu zuen Galdakako Julenek lehen aldiz bere blogean argazki bat edita-

tzea. Lekeitioko Erramunek hainbestetan irakurritako Joxe Arantxabal ezagutzeko aukera izan zuten eta oraindik euren bloga probatzen ari diren Elenak eta Josuk gomendio interesgarriak entzun zituzten.


"Lehen topaketan 22 blogari elkartzea oso kopuru polita da", esan zuen Iban Arantxabal antolatzaileak. "Ziur hurrengo topaketan kopurua bikoiztu egingo dela, oraintxe eman baita blogen eztanda". Hurrengo topaketa egiteko arrazoiak badaude, beraz.

22 blogari elkartu ziren Elgetako Espaloian deitutako I. Blogs & Beers topaketan

Wi-Fi sistemarekin, kontaketa Internet konexio bidez jarraitzeko aukera izan zuten domekan

Espaloian batutako blogariak elkar ezagutu eta esperientziak trukatu zituzten

• I. TOPAKETARA HURBILDU DIREN ZENBAIT BLOGARI



IGOR, IBAN ETA MIKEL |
ARRASATE, GASTEIZ ETA IRUN

"Beste blogari batzuk ezagutu eta esperientziak partekatzea etorri gara"

Igorrek komikiak eta informatikari buruzko kontuak argitaratzen ditu bere blogean. Ibanek literaturari buruzko blog kolektibo bat jarri du martxan. Mikelek kirola, kultura eta beste hainbeste gauza jorratzen ditu. "Beste blogariak ezagutu eta garagardo batzuk edatera etorri gara".



MIKEL LARREATEGI |
EIBAR

"Blog batean nahi duzunari buruz idatz dezakezu"

"Blogs interesgarria da aukera ematen duelako nahi duzunean nahi duzunari buruz hitz egiteko. Bestalde, bertan zure iritziak pilatu egiten dira eta aldaketarik eman den ikusteko aukera dago".



JOXE ARANTZABAL |
ELORRIO

"Blogs webgune oso berezi bat da, pertsonala eta dinamikoa"

Joxe ezaguna dugu Interneten minbiziaren inguruko bizipen oso pertsonalak eman dituelako ezagutzera. Orain, Faroa bloga du. "Blogs elkarriketa sortzeko aukera ematen du. Eguneratu egin daiteke eta oso dinamikoa da". Joxek aholku asko eman zituen Elgetan. Ikasi ere egin zuen.



ANGEL BIDAURRIZAGA |
MUNGIA

"Unibertsitatean blog proiektu bat dugu martxan"

Angel EHUko anatomia irakaslea da eta bere blogean ikasgaiak sartzen ari da. "Topaketa ideia ona da baina ekitaldia hobeto antolatu daitekeela uste dut, bakoitzak bere esperientzia azaltzeko moduan".

FARMAZIAREN HISTORIAREN INGURUKO ERAKUSKETA

Zenbakiak

5

Sendabelarrak, sendagaiak egiteko tresneria, sendagaiak, ontziteria eta botika arloko bitxikeriak daude ikusgai erakusketaren bost gunetan.

XIX

XIX. mendeko pildoreroa (pilulak egiteko tresna) da erakusketako tresnarik zaharrena.

24

Apirilaren 24ra bitartean dago zabalik erakusketa. Astegunetan, 09:00-13:30 eta 16:00-20:00; asteburutan, 12:00-14:30 eta 17:30-20:00.

Berbena

Sendabelarren artean Euskal Herrian garrantzia handia izan du berbena-belarrak.

Infusioan, xarabean, tortillan eta enplatu eran erabiltzen da berbena. Besteak beste, sinusitisa, digestio arazoak, bronkitisa, sukarra, eztarik gaitzak, hileroko mina eta buruko mina sendatzeko erabiltzen da sendabelar hori.



Sendabelarrak ere ikusgai daude erakusketan. Kurtzebarriko ikasleek ere izan zuten haiek usaintzeko aukera.

ESKORIATZA | IBARRAUNDI MUSEOAN DAGO IKUSGAI, APIRILAREN 24RA BITARTEAN, ERAKUSKETA

Sasoi bateko botikarien bitxikeriak ezagutzeko aukera dago Ibarraundin

Farmaziaren inguruko erakusketa apirilaren 24ra bitartean egongo da ikusgai bost gunetan banatuta

Apirilaren 20an farmaziaren historiaren gaineko hitzaldia emango dute Ibarraundi museoan

Marijo Deogracias

Eskoriatzako Ibarraundi museoan ikusgai dagoen farmaziaren inguruko erakusketa bisitatzea joan ginen egunean. Gu eta Aretxabaletako Kurtzebarri eta Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxeetako ikasle talde bana. Alfredo eta

Iñaki Elortza aita-emeek hartu gintuzten. Aitak sendagaien gaineko azalpenak eman zizkigun eta semeak, berriz, xarabea eta ukendua nola prestatu azaldu zigun.

Ikasleek ere xarabea eta ukendua egiten laguntzeko aukera izan zuten; osagaiak nahastu, eragin...

eta azkenean, probatu. Haiek ziren aurpegiak haiek! Gustu ezatsegi-na zuela esaten aritu ziren guztiak. Ilen kultibatuaren ukenduak zertarako balio zuen ere azaldu zuen Iñaki Elortzak (zauri txikiendako, azaleko urradurendako, erredurendako...) eta, badaezpada ere, ukendua egin ostean, guztiek eman zuten eskuetan.

Nahikoa lan izan zuten Alfredo eta Iñaki aita-emeek ikasle guztiak dominatzen, baina lortu zuten, batez ere Iñakik, aho zabalik jarrai zezatela xarabea eta ukendua egiteko prozesua.

ELKARLANEAN OSATUTA

Goardiako Farmazien Elkartearen eta EHUko Arabako Farmazia fakultateko museoaren botikarien tresnak eta bestelakoak batu dituzte Ibarraundi museoan. Erakusketa apirilaren 24ra

bitartean egongo da ikusgai. Nerea Arana da museoko arduraduna eta berak azaldu digunez, "Ibarraundin egin dugun behin-behineko lehenengo erakusketa izan da farmaziari buruzkoa. Erakusketaz gainera, hitzaldi bi eta

Ikasleek xarabea eta ukendua egiteko aukera izan zuten museoan

"Sendabelarrak erabiltzeko ohitura badagoela ikusteko aukera izan genuen aurreko hitzaldian"

erakustaldi bat antolatu ditugu. Lehenengo hitzaldia oso arrakastatsua izan zen; Alfredo Elortza botikaria izan zen hemen sendabelarrez hitz egiten. Jende asko etorri zen eta galdera asko egin zizkieten; sendabelarrak erabiltzeko ohitura badagoela ikusi ahal izan genuen".

Eguaztenean izango da bigarren hitzaldia. Antonio del Barrio botikaria arituko da, 18:30etik aurrera, farmaziaren historiari. Bera farmaziaren historia jasotzen duen museoaren sortzaile-etariko bat da eta 40 urtez botikaria izan dela ere adierazi digu. Kontu asko eta asko jaso ditu bere lanbideari esker, eta bitxikeria asko ere badakizkiela aitortu digu.

Del Barriok eguaztenekoa ere hitzaldi entretenigarria izango dela esan digu.

FARMAZIAREN HISTORIAREN GAINEKO ERAKUSKETA

Kurtzebarri eta Luis Ezeiza ikastetxeako botikari lanetan

Aretxabaletako eta Eskoriatzako ikasleak izan ziren joan zen egunean Eskoriatzako museoa. Farmazia erakusketari bisita egin ostean, sendagaien gaineko hitzalditxo entzun zuten eta, ostean, belar xarabea eta azaleko urradurendako ukendua egiten aritu ziren Iñaki Elortza botikari berriztarraren laguntzarekin.

Irakasleek puntu positiboak banatu zituzten ondo erantzundako galdera bakoitzeko eta ikasleek, batzuek beste batzuek baino gehiago, adi-adi jarraitu zituzten emandako azalpenak. Parte ere hartu zuten sendagaiak egiten eta, gero, hartu egin zituzten.



• ZER IRUDITU ZAIZUE FARMAZIARI BURUZKO ERAKUSKETA?



LOREA, LANDER, MAIALEN, LEIRE, ADRIAN IBAN, ENDIKA ETA RUBEN | LUIS EZEIZA

“Erakusketa polita izan da eta xarabea egitea gustatu egin zaigu”

Erakusketa polita iruditu zitzaie esan ziguten. Esperimentuan egindako xarabea probatu zutela ere bai. Landerrek esan zigun zapore txarra zuela; Loreak, usain txarra; Maialenek, aldiz, zaporea bai, baina usaina ez zela txarra.



ALEX, RAFA, RUBEN, OIER, SERGIO OLATZ, AMAIA ETA SILVIA | LUIS EZEIZA

“Ondo ibili gara, baina farmazia ikasketak ez ditugu egingo”

“Xarabea probatu dugu, baina ez zaigu gustatu”, zioten guztiek. Crema egiten ere jardun zuten.

Hala ere, farmazia ikasketak egiteko prest ez zeudela aitortu ziguten, oso ondo pasatu zutela esan arren.



ANDER, AMETS ETA AMALUR | KURTZEBARRI

“Harritu egin gaitu xarabeak hainbeste azukre zuela jakiteak”

“Iñaki Elortzaren azalpenak dibertigarriak izan dira. Harritu egin gaitu xarabeak hainbeste azukre zuela jakiteak, bai eta kotoia paperean batuta saltzen dela jakiteak” zioten. Erakusketa “polita eta bitxia iruditu zaigu; tresna zahar asko dago”.



SARA, GARAZI, ANE ETA JOSE | KURTZEBARRI

“Gauza bitxi asko entzun eta ikusi ditugu; aspirina kaxa erraldoi bat ere bai”

Adi-adi jarraitu zituzten Alfredo eta Iñakiren azalpenak. “Esperientzia polita izan da; gauza bitxi asko entzun eta ikusi ditugu”, esan ziguten. “Aspirina kaxa handi-handi bat erakutsi digute lehenengo eta xarabea egiten gero”, azaldu ziguten.

ANTONIO DEL BARRIO | FARMAZIAREN HISTORIAN ADITUA

“Euskal Herriaren historian magiak eta sineskeriek eragin handia izan dute”

M.D.

Medikuntzaren Euskal Elkartaren bazkide fundatzailea da eta Farmazia Historiaren Elkarteko bazkide. Eguaztenean Eskoriatzako museoa izango da farmaziaren historiari jarduteko.

Aurreratu egiguzu zure hitzaldia.

Farmazietako lanabesak, ontziteria, formula magistralak, erremedioak, XVIII-XIX mendeetako errezetategiak eta treba-

kuntzaren gaineko zertzeladak izango ditut hizpide.

Euskal farmakologiak berezitasunik badauka?

Historian magiak eta sineskeriek eragin handia izan dute. Adibide gisara, Donostian badao jauregi bat atean karduaaren irudia duena, gaixotasunak uxatze aldera. Hala ere, sendatzeko artean ez dago berezitasunik.

Sendabelarrak asko erabiltzen direla eta, horretaz jardungo duzu?

Jakina, ezinbestekoa baita sendabelarrez aritzea farmakologiari ari garenean. Botiken erre-

zeta magistraletan animaliak, mineralak eta belarrak kontuan izatea ezinbestekoa da.

Asko aldatu da farmakologia urteekin?

Hori baino gehiago erakutsi nahi dudana da, lehen egindako akatsetatik ikasi behar dugula eta ezagutu egin behar ditugula antzina egindako akatsak.

Medikuntza tradizionalaz gainera, geroz eta zale gehiago dute bestelako medikuntzek. Horrek badauka eraginik farmazialariengan?

Esperimentazioaren arloa beti dago zabalik bestelako tek-

nika eta teorietara; ezin da oztopatu. Hala eta guztiz ere, kontuz hartu behar dira “Mesias” legez aurkezten dizkiguten erremedioak. Petrikiloak beti egon izan dira, baina desberdintzen jakin behar dugu horrela aurkezten dizkiguten sendagaiak.

Erabiltzaileek konfiantza osoz jotzen dugu farmazietara?

Min arinen batekin etortzen diren gaixoei badakite farmazialariak min hori arintzeko sendaia emango dietela; eta, aldi

berean, badakite errezeta behar duten sendagairik ez dietela emango, errezetarik aurkeztu ezean. Euskal farmazialariak ondo baino hobeto errespetatzen dute arau hori eta gaixoak badauki. Gainera, sendagaien bat eskatzera datorren gaixoa, normalean min arinen bat duena da; osterantzean, lehenengo eta behin medikuarengana jotzeko ohitura dago gure artean.

Farmaziaren museoren sortzailea zaitugu.

Farmaziaren Historiaren Elkarteko kide naizen aldetik, horretan aritu nintzen orain dela urte batzuk.

Horrez gainera, farmaziaren zientziari arduratzen den Letra eta Arteen Espainiako Elkarteko kide ere banaiz. 40 urtez aritu naiz botikari lanetan.

“Min arinekin etortzen dira gaixoak farmazietara”

Independentzia Eguna eta Elkartasun Festa batera ospatu dituzte Antzuolan

Gazte Asanbladak antolatu du bigarren urtez Antzuolaren 375 urteko herri independentzia ospatzeko ekitaldi egitaraua

Larraitz Zeberio

Duela 375 urte lortu zuen Antzuolak herri independentzia, 1629ko abenduaren 12an Bergararekin zuen elkartzea apurtu eta gero. Zilarrezko 5.000 dukat ordaindu behar izan zizkioten Antzuolako herritarrek Felipe IV.a erregeari independentziaren truke.

Duela zortzi urte hasi ziren antzuolarrak Independentzia Eguna ospatzen eta joan den urteaz geroztik Gazte Asanbladak hartu du ospakizun ekitaldiak antolatzeko ardura.

Aurtengoa Independentzia Egun euritsua izan dute antzuolarrak, baina aurreikusitako eki-



AINZANE AGIRRE

Independentzia Eguneko bazkarirako 75 lagun batu ziren frontoian.

taldi guztiak burutu dituzte eguraldi petralari aurre eginez.

Zapatu eguerdian triki poteoa egin zen herrian eta jarraian gaztetxeari buruzko film labur bat eskaini zen. Eguerdian, 75 bat

lagun elkartu ziren frontoian lagun arteko bazkaria egiteko hainbat baserriar jantzita. Bazkalostean, bertsolariak ere aritu ziren. Giroa bikaina izan zen goizetik iluntzeraino.



AINZANE AGIRRE

Erretiratuek pozik jaso zuten oparia zapatu arratsaldean.

Auzoko zortzi erretiratu omendu dituzte Altamiran

M.B.

Arrasateko Altamira auzoan jaiak ospatu dituzte asteburuan. Eguraldiak ez die gehiegi lagundu, baina hori ez da eragozpen izan altamirarrendako antolatuta zituzten ekitaldi ia gehienak aurrera egiteko.

Askotariko ekitaldiak izan dituzte: umeendako jolasak, egunotarako taberna berezia, margo lehiaketa, txokolate jana, musika... Ume, gazte zein nagusiagoetan pentsatutako ekitaldiak, gainera.

AUZOKO ERRETIRATUEI OMENALDIA

Ekitaldi horien guztien artean, hunkigarrietako bat auzoko erretiratuei egindako omenaldia izan zen. Zortzi erretiratu, hain justu ere, guztiak 70 eta 80 urte bitartekoak. Auzoko plazatxoan egin zieten ekitaldia eta gustura asko jaso zuten oparia Asun Zuritak, Cristina Azurmendik, Isidra de la Callek, Julia Posadasek, Nikolas Madinabeitiak, Jose Mari Telleriak, Candido Hernandezek eta Virgilio Monterok.

Iluntzean, Anelkarren txistor jana eta toka Zurrategin

Frontoitik Zurrategira egin zuten iluntzean antzuolarrak, bertan Elkartasun Festa zuten eta prestatua Anelkar GKEko kideek.

Txistor jana eta toka jokoa zituzten antolatuta. 300 euro batu ziren, Senegal, Kongo eta Brasilerara bideratuko den diru kopurua, hain zuzen ere. Bederatzi kilo txistor jan zituzten antzuolarrak ardoarekin lagunduta.

Elkartasun Festan capoeira ikuskizuna ere egon zen eta ondoren poteoa egin zen Antzuolan txarangarekin.



Labur

Gaur hasiko dira Apotzaga auzorako bidea egokitzeko lanak

Eskoriatzako Apotzaga auzorako sarrera alternatiboa egokitzeko lanak gaur hasiko dira. Udalak hartutako erabakia da, eta behin-behineko sarrera hori Apotza-Etxebarritik egingo dute. Aretxabaletako Udalak ere eman die honezkerok baimena lanotarako; izan ere, bide berriko tartetxo bat Aretxabaletako lurretatik igaroko da. Lanak gaur, astelehena hasiko dira eta Udalak uste du aste-betez luzatuko direla.

Diploma banaketa ekitaldiak MUK

Larraitz Zeberio

Asteburuan jaso dituzte euren tituluak iaz 14 titulazio ezberdinetan Mondragon Unibertsitatean diplomatutako 625 ikaslek.

Bi ekitaldi antolatu zituen MUK. Bariku arratsaldean 505 ingeniari berrik jaso zituzten euren diplomak Arrasateko Uarkape pilotalekuan burututako ekitaldi akademikoan.

Zapatuan Oñatiko Santa Ana Auditoriumean elkartu ziren enpresen administrazio eta zuzendaritzan zein kudeaketa informatikan ingeniari teknikoan diplomatutako 120 tituludun berriak.

Bi ekitaldiak oso jendetsuak izan ziren, ikasle eta irakasleei senitarteko eta lagun asko elkartu zitzaizkien eta. Argazkiak ateratzeko eguna inondik ere.



AINZANE AGIRRE

Bariku arratsaldean bete egin zen Arrasateko Uarkape pilotalekua. Senitarteko asko etorri zen ekitaldira.

Aretxabaletak aldatu egin du tranbiaren ibilbidea

Tranbia Durana kaletik ez pasatzea erabaki du Udalak, etorkizunean egingo diren etxeak direla eta

Asteleheneko Goienkaria

Aretxabaletako Udalak herria zeharkatuko duen tranbiaren ibilbide alternatiboa aurkeztu dio Garraio eta Herri Lanetarako sailari. Durana kalea ez da ibilbide horretan agertzen, herri erdiguneko ibilbidea aldatu egin baitute.

Hortaz, tranbiaren ibilbide berria hauxe izango da: Santutxu aldean GI-3920 errepidetik sartu, Deba ibaiaren zubira iritsi baino lehen eskuinera biratu, eta Aramaiora egingo den errepide berriaren parean jarraituko luke. Handik aurrera, herri erdian sartuko da Lausitta kalean (etorkizunean Deba ibaiaren ertzetik egingo den oinezko pasealekua-aren parean) eta Belorrieta auzoan zubi batetik gurutzatuko du ibaia. Gune horretan, ibilbide berria Belorrieta ibilbidetik eta Nafarroa eta Loramendi kaleetatik joango da Eskoriatzaraino (Araba ibilbidetik aurrera) hasieran aurreikusitako proiektuari jarraituz.



ARTXIBOA

Jaurilaritzaren proiektuan Durana kalea zeharkatzea aurreikusten du.

550 ETXEBIZITZEN ERUZ

Udaleko iturriek azaldu dutenez, tranbiaren ibilbidearen aldaketa herrian egingo diren 550 etxebizitzaren proiektutik dator. Udalak aurkeztutako alegazioetan jasotzen da ibaiaren ezker aldean dagoen 2b sektoreko planak jasotzen duen etxe proiektua, eta horrekin batera herriak izango

duen hazkundea. Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu barik duen proiektua den arren, Udalak gobernua uste du onartu egingo duela.

ARRASATEN 23 ALEGAZIO

Tranbiaren ibilbideari Arrasateko herriak 23 alegazio egin dizkio; auzotar askok elkarrekin aurkeztu dituzte alegazioak. Bestalde, aipatzekoak dira Musakolako Zubiondo etxeko jabeek eta San Andresko Takolo baserrikoek egindakoak; izan ere, biak bota egingo lirateke gaur egungo ibilbideari eutsiz gero.

Udalak 5 alegazio aurkeztu ditu, tartean, Mugarrietan geraldakua egiteko eskaria.

Belorrieta, Nafarroa eta Loramendi kaleetatik joango da tranbia

Arrasaten, herritarrek eta udalak, 23 alegazio egin dizkiote ibilbideari

GURE IRRATIA BIDE GURUTZEAN!!

GURE ERRONKA: EUSKARAREN BIZIRAUPENA EUSKARA GALTZEN ARI DEN EREMUAN

GURE IRRATIAK FUNTSEZKO PAPERA DAUKA BIHAR EUSKARA BIZI DADIN LAPURDIN ETA EUSKAL HERRI OSOAN

Lapurdikoko Herri Irratiak bere 23 urteko istorian aldaketa nagusia biziko du aurten: lokal berri bat eraikitzen doa eta zure laguntza baitezpadakoa du.

Ipar Euskal Herria euskara desagertzea onartzen ez dugulako, eskerrak zure laguntza premiatsuagatik jasotzeko.

Herritarren sustengueren jasotzeko:

-Ipar Euskal Herria: Crédit Mutuel: 15999 02277 00050514940 64

-Hego Euskal Herria: Euskadiko Kubxa: 3035 0059 81 0590071330

Gure Lokala

Goizetik arrats... Beti euskaraz
GURE IRRATIA
Zure Irratia 106.6 - 90.5 FM

Kilometroak 05en aldeko martxa, sasoiko daudenen ibilaldia izan zen

A.G.

KM05eko antolatzaileek erretiratuentzako ekimenak bultzatu nahian, mendi martxara deitu zituzten zapatuan Leintz aldeko jubilatuenak. Goizeko 9etan zen hitzordua eta euria ziharduen atertu ere egin barik. Hala ere, 50 bat lagun (Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoak gehienak) animatu ziren Almen-Eskoriatzako plaza-Bolibar-Eraña-Mendiola-Aretxabaleta-Almen mendi martxa egiteko. "Uste baino bizkorrago egin dugu. 09:30ak

aldera aterata da lehenengo taldea eta 11:30-11:45ak bueltan talde guztiak iritsi dira helmugara" esan zigun antolatzaileetarik batek. "Umore onarekin eta erritmo oso onean abiatu dira launako taldeetan, 30 segundoko tartarekin. Lau kontrol jarri ditugu ibilbidean", adierazi ziguten.

Ostean lancha eta sari eta diploma banaketa egin zituzten Almenen: "KM-ko Jubilatuen lehenbiziko mendi martxaren" diplomak batetik eta zotz egingako bi saski eta bainuetxean egonaldia, bestetik.



AINZANE AGIRRE

Diploma bana banatu zieten martxan parte hartu zuten guztiei.

Labur

Ministroen Kontseiluak baiezkoa eman die Epeleko araztegiaren lanei

Egubakoitzean baimendu zuen Madrilgo Ministroen Kontseiluak Epeleko araztegia egiteko lanen kontratua. Azken egunotan nahasmena izan da gai horren inguruan. Izan ere, Madrilek esan zuen lan hori egiteko dirurik ez zuela; Eusko Jaurilaritzak, berriz, "hauteskudenen atarian egindako maniobra" zela hori, eta "Madrili aspalditik eza-gun zaiola ohitura hori". Kontuak kontu, baiezkoa eman diote Ingarumen Ministerioak egingo duen araztegiari. Lanen hasierako aurrekontua 32 milioi eurokoa da eta 48 hilabeteko exekuzio epea dute.

Mazda3. Behar duzuna badaukazu?



Bikar

M MENDIOLA

San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE



Apirilak 18a: 039 zozketa

Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, apirilak 18, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astlehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).


- Juan M. Agirre Zubialdea (Bergara)
- Nieves Goirizelaia Arruza (Bergara)

Kike Amonarrizen 888 TXISTE liburua

- Ion Agirreurreta Etxenagusia (Bergara)

Apirilaren 25eko sariak

- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).



LAUBURUA

Mahai jokoa

Argia

argitaletxearen eskutik



Albiste izango da

BERGARA | MUGAEGUNA MAIATZAREN 3A DA

Jardunek 15. urtemuga irudikatzeke logotipo lehiaketa deitu du

Bergarako Jardun Euskara Elkartek 15 urte beteko ditu maiatzean. Horren harira, urtemuga irudikatzeke logotipo lehiaketa deitu du. Bergarako edonork har dezake parte, bi mailatan banatuta: 12 urtetik beherakoak eta 12 urtetik gorakoak. Logoan 15. urteurrena eta *Jardun* hitzak azaldu beharko dira. Bestalde, teknika librea da eta zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu ahal izango dira, folio tamainako kartulina zurian. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 3a da eta helbide honetan aurkeztu beharko dira: Jardun Euskara Elkartea, Errotalde jauregia (kultura etxea).

OÑATI | GAUR ETA BIHAR IZANGO DIRA

Gazteen ikasketen eta aisialdiaren gaineko hitzaldi bana egingo dute

Gazteen gurasoei zuzendutako hitzaldiak izango dira gaur eta bihar. Batetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo ikasketak delako hitzaldia egingo dute bi adituk Txantxiku ikastolan DBHko 4. mailako ikasleen gurasoendako. Gaur, astelehena, A taldeko ikasleen gurasoendako izango da hitzaldia; bihar, martitzena, B taldekoendako, biak ere 18:30ean.

Bestetik, bihar, martitzena, gazteen aisialdiaren gaineko hitzaldia egingo du Eraberri taldeak. Elkar Hezi ikastetxean izango da, Santa Marinako mediatekan, 19:00etan. Hamabi eta hemezortzi urte bitarteko ume eta gaztetxoek gurasoei dago zuzenduta hitzaldia.

OÑATI | GAUR HASI ETA EGUBAKOITZERA ARTE

Erretiratuek ekitaldi ugari izango dute asteen Pake Leku egoitzan

Gaur, astelehena, hasiko da Pake Leku erretiratuen egoitzak antolatutako ekintza sorta berezia. *Ongi etorri, udaberria* lelopean antolatu dituzte ekintzok. Ekintzotan arlo asko jorratuko dituzte: informatika, kultura eta aisialdia, besteak beste, eta helburua da arlo horietaz baliatuz nagusienengana helaraztea interesekoak dituzten gaiak, gizarte integrazioa edo aisialdia, esaterako.

Gaur, 17:00etan, inauguratuko dute ekitaldi sorta *El poder curativo de la risa inteligente* izeneko hitzaldiarekin. Bihar, martitzena, *Pretty woman* filma emango dute 18:00etan. Eguaztenean, berriz, unibertsitatera eta San Miguel parrokiara bisita gidatua egingo dute. Eguenean bingoa izango dute eta egubakoitzean, berriz, Umore Ona eta Aloña abesbatzen emanaldia izango da, 19:00etan.

ARRASATE | OSOKO BILKUREN ARETOAN, 19:00ETAN

Emakumeen Mundu Martxa aurkeztuko dute eguaztenean

Emakumeen Mundu Martxa aurkeztuko du Alizia Otxoa Euskal Herriko Mundu Martxako Plataformako kideak eguaztenean, hilak 20, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Emakumeen Mundu Martxa emakumeengan eragin zuzena duten pobreziaekin eta sexu indarkeriarekin amaitzeko lan egiten duten taldeen eta ekimen feministen sare bat da, eta 163 nazio eta estatutako 5.500 taldek baino gehiagok hartzen dute parte. Euskal Herriko ordezkariak Emakumeen Mundu Martxa ezagutzera eman eta bertan parte hartzera animatu nahi dituzte arlo ezberdinetako taldeak.

DEBAGOIENA | PIRINIOETARA ETA KOSTALDERA

Mendi irteerak antolatu dituzte Pol-Pol eta Aloña Mendi elkarteek

Bergarako Gorla Alpino eta Pol-Pol mendizale elkarteek irteera antolatu dute apirilaren 30etik maiatzaren 2ra bitartean. Pirinioetan eta Santa Orosia inguruan egingo dute ibilbidea eta nahi duen edonork eman dezake izena. Interesatuak Pol-Pol elkartearen egoitzan (Komenio kalea, 11) eman beharko dute izena hilaren 21a baino lehen.

Oñatik Aloña Mendi elkarteak, berriz, kostaldera egingo du mendi irteera. Datorren domekan izango da, apirilaren 24an. Ibilaldira joan nahi dutenek Aloña Mendi tabernan eman beharko dute izena hilaren 21a baino lehen.

Hitzorduk



LEHEN SOROSPEN TAILERRAK IZANGO DIRA ANTZUOLAN ETA ARRASATEN | Antzuolako ikastetxeak eta Gurutze Gorriak ikastaro bana antolatu dute

Antzuolako ikastaroa hasita dago, baina jardunaldi bakoitzera joateko aukera ere badago. Denoi dade zabalik, batez ere gurasoei eta kirol begiraleei. Tailerrak teoriko-praktikoak dira eta honako egunetan izango dira: hilaren 21ean, bihotzaren eta biriken erreanimazioa; eta 28an, arnasbidearen

gaineko erreanimazio teknikak. Antzuolako ikastetxean da, 18:00etan.

Gurutze Gorriak, bestetik, ikastaroa antolatu du maiatzaren 3tik 16ra, Arrasaten, eta izenematea zabalik dago honako telefono zenbakira deituta: 680 64 80 14.

ARETXABALETA |

• **Parrokia eta Gaixok delako hitzaldia gaur, astelehena**
Roberto Garciak egingo du hitzaldi hori gaur, astelehena, parrokiako lokaletan, 19:00etan, Osasun Pastoralak antolatuta.

• **Lourdesera joateko izenematea zabalik dago**
Elizbarrutiak gaixoen erromesaldia deitu du maiatzarako. Parrokiak maiatzaren 21 eta 22rako antolatu du bidaiak. Izenematea zabalik dago, sakristian.

BERGARA |

• **Dantza latindar lehiaketan izena emateko epea**
Dantza latindar lehiaketa deitu dute Mendekoste jaietarako. Maiatzaren 14an izango da, baina izena eman behar da maiatzaren 6a baino lehen, kultura etxean edo 943 77 91 59 telefonora deituta. Sariak, honakoak: 600 euro irabazleendako, 300 bigarrenendako eta afari bat hirugarrenendako.

• **Musika Eskolak izenemate epea zabaldu du**
Euren bulegoan eman behar da izena, astegunetan, 15:30-19:30.

• **Begiraleak behar dituzte uztaileko udalekuetarako**
Izenemate epea zabalik dago hilaren 22ra bitartean, Xipizaro ludotekan, 17:00-19:00. Telefonoa da 943 76 23 76.

• **27an jaiotakoek bazkaria egingo dute laster**

Hilaren 23an batera bazkalduko dute Zumelagan, 14:00etan. Izena emateko, sartu 15 euro Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontuan.

ESKORIATZA |

• **Farmaziaren historiaren gaineko hitzaldia**
Farmaziaren historia 1.000 botika-tresnaren bitartez delako hitzaldia egingo dute gaur, astelehena, Ibarraundin, 18:30ean.

• **Gaixoen oliadura jaso gura dutenen izenematea**
Gaixoen oliadura egingo dute hilaren 24an, 12:00etako mezan, eta hartu gura dutenek izena eman dezakete sakristian, astegunetan 19:30etan eta domekan 12:45ean. Gaixoei eta 65 urtetik gorakoei egiten diete dei.

• **Ebanjelioaren gaineko hitzaldia egingo dute**
Ebanjelioari buruz hitz egitea ez dago modan delako berbaldia egingo du Florencio Torrellido adituak etzi, eguaztana, kultura etxean, 19:00etan. Osasun Pastoralak antolatzen du ekitaldi hori.

OÑATI |

• **Guraso Eskolako lan-saioa izango da gaur, astelehena**
Lagunen garrantzia seme-alaben garapenean gaiaren inguru-

ruko lan-saioak antolatu ditu Guraso Eskolak. Lehen saioa gaur, astelehenean, izango da. Argibideak, Udal Prebentzio Zerbitzuan (943 03 77 00, Ainhoa).

• **Sahararen inguruko hitzaldia izango da asteen**
Hilaren 21ean, eguena, izango da hitzaldia Errekalde Herri Eskolan, 10:00etan eta 11:30ean.

• **Errekalde Herri Eskolaren 25. urteurreneko ekitaldiak**
Errekalde Herri Eskolak 25. urteurreneko ekitaldiak egingo ditu. Gaur, astelehena, hasi eta hilaren 22ra bitartean, ikasle eta gurasoendako hainbat ekintza egingo dira.

• **Arrantza txapelketarako izenematea, zabalik**
Hilaren 24an, domeka, jokatu dute txapelketa. Izena emateko, joan Altzu dendara hilaren 22a baino lehen.

• **Kostalerara mendi irteera egingo du Aloña Mendik**
Apirilaren 24an, domeka, joango dira Arabako inguru horretara. Aloña Mendi tabernan eman behar da izena hilaren 21a baino lehen.

• **KZGuneako ikastaroetan izena emateko aukera**
Gai zehatzen gaineko zenbait ikastaro eta Interneteko oinarriko ikastaroa antolatu ditu KZGuneak apirilerako. Izenematea, KZGunean edo 943 71 83 20 telefono zenbakian.

Iritziak



Isilpekoak

943 76 92 71
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Zinezaleak Bergarako Udalari:

Bergarako zine aretoa itxi dutela eta, honako gutuna jaso dugu: "Aste Santuaren bueltan bergararrok berri txar bat jaso dugu: geneukan zinema areto bakarra itxi digute. Gauzak honela, herritar talde bat bildu gara Udalarari arazo honetan esku hartu dezan eskatzeko eta, bide batez, herritarrok lehenbailehen zinea berriz ikusteko aukera izan dezagun".

• Amaitu dituzte autopistako lanak.

Badira hiru bat aste Larreategiko zubibidea konpondu dutela. Horren haritik zera adierazi digu irakurle batek: "Bazen ordua! Kostata baina azkenean bukatu dute tunelen osteko zubia. Hala ere, eta hango lanak amaitu dituzten arren (bi norabideetan karril biak daude erabiltzeko moduan), oraindik lanek diraute autopista horretan. Orain Eibar parean ari dira lanak egiten. Asfaltoa hobetzeko lanak dira, baina Bergarara doan bide parean ari direla eta, sarrera nahiko arriskutsua egon da. Eta, bitartean, bidesari osoa ordaintzen jarraitzen dugu erabiltzaileok. Izan al daiteke diruzaleagoa?".

• Bergarako aparkaleku publikoa dela eta:

Bergarako parkingari egindako txistuak ere jaso ditugu asteon erredakzioan. Debalde izatea oso ondo dagoela, baina horrek ez duela esan nahi ez denik garbi izan behar adierazi du irakurleak: "Bergarako Udalak diru publikoa erabili zuen parkinga egiteko eta eskertzekoa da, batez ere herrian daukagun aparkaleku arazoa kontuan izanik. Baina debalde delako, hau da, erabiltzaileok kuotarik ordaintzen ez dugulako, ez al da dirurik inbertitu behar parkingaren garbiketan. Oinezko pasabidea, behintzat, garbitu".

Sarean harrapatuta

Aurten zezenketarik ez Bergarako jaietan

Aurten ez da zezenketarik egingo Bergarako Mendekoste jaietan. Izan ere, azken urteotan zezen plaza jarri duten lekuan, orain ertzainen etxea dagoen pareko apartalekuan, etxebizitzak egiten hasi behar

dute. Beste leku aproposik ez du aurkitu Udalak eta zezenketak kendu egin dituzte jaietako egitarautik. *Goiena.net*-eko Bergarako atalean jarri dute gai honen inguruko eztabaida. Hemen iritzi batzuk.

ZEZENKETAK EGIN, BAINA TORTURATU GABE

Nik ez ditut faltan sumatuko, ez ditut atsegin eta. Baina ulertu ditzaket zezenketa zaleen kezka. Gauza ez da egitea edo ez egitea, baizik eta trantsizioko ekitaldiak egitea. Animalien sufri-menduarekin festa egitea gorroto dut, baina uste dut animaliekin disfrutatu dezakegula guztiok. Zergatik ez zezenketak egin zezena hil eta torturatu gabe? Beste gauza bat da *fiesta naziional*-a Euskal Herrian egitea, baina nik, printzipioz, ez nuke arazo larriegirik izango.

Lehena / www.goiena.net

ZORIONAK ZEZENKETAK EZ ANTOLATZEAGATIK

Nik ez. Bazen zezenketak kentzeko garaia. Gainera aspertuta nago beti entzuten, zezenketei esker existitzen direla zezenak. Hiruko erregela horren arabera, Bengalako tigreak eta katamotz iberiarrak berdin. Zergatik ez dute horiekin zezenekin egiten duten berdina egiten? Gezurrak alde batera laga eta zezenzaleak direnek ikas dezatela beste era batera disfrutatzen. Denon diruarekin astakeria hori ordaindu behar dugu? Mesedez.

Behingoagatik, zorionak Bergarako Udalarari, aurten zezenketak ez daudelako, eta espero dut

hemendik aurrera zezenketa gehiagorik ez egotea gure herrian!

Igor / www.goiena.net

HERRIKO PLAZAN ERE EGIN DAITEKE ZEZENKETA

Eta zergatik ez dute ipintzen zezen plaza beste leku batean? Agian zezen plaza ez, baina herriko plazan dena itxita edo nonbait...

Bergarako jaiak zezen barik, ez dira Bergarako jaiak.

Parrandazalea / www.goiena.net


JAIK HOBETZEKO EZ DIRA ZEZENAK BEHAR

Orduan, orain herri bateko jaiak hobeak izateko, animalia batzuei sufriarazi eta hil egin behar dira? Nik uste dut herri batean jai onak egiteko gauza asko egin daitezkeela. Beste kontu bat da Bergarako jaiak gauza asko ez eskaintzea, eta orduan zezenketak izango lirakeke egitarauko gauzarik onena. Beraz, ez esan Bergarako jaiak zezenketekin hobeak direla, hobeak izango lirakeke gauza gehiago eskainiko balute.

Igor / www.goiena.net

www.goiena.net

Aurtengo Bergarako jaietan zezenketak faltan sumatuko dituzu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

JAIETAKO GIROA ASPALDI DAGO JAITSITA

Eztabaida faltsuak? Zezenketen gaia faltsua dela iruditzen zaizu? Eztabaida honen gaia hau da: aurtengo jaietan zezenketen falta sumatuko duzu? Nire ustez ez da faltsua. Beste kontu bat: Bergarako jaietako giroa aspaldi aldatu zen eta azken urte hauek ez da gauza handiegirik egin hau aurrera ateratzeko. Askok kanpora joateko aprobetxatzen dituzte eta beste batzuk kanpota lan egin edo ikasten dutelako ez dira herrian egongo. Beraz, girorik onena aste bukaeran egongo da eta urtetik urtera aste bukaerako giroa behera doa.

Jone / www.goiena.net

Halaxe erantzun digute

Bideragarriak
lirateke
gure
ibarrean
30 metro
karratuko
etxebizitzak



MIKEL ASENSIO |
ETXE BILA ARI DA

Sasoi bakoitzean etxebizitza estilo bat izatea ondo dago, baina ez dakit arrakasta izango lukeen horrelako ekimen batek hemen. Ekimen modura gaizki egon ez arren, ez dut uste soluzioa denik. Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko bideak jorratu behar lirateke.



IÑIGO MURUAMENDIARAZ |
KOROSTI INMOBILIARIAKOA

Irtenbide bat izan daiteke, baina horrekin ez da dena konpontzen. Ezkongai batendako izan daiteke, agian, baina gainontzean gehiago egin beharko litzateke. Gurean baten batzuk aukeratuko lukete, eskaintza gutxi eta eskari asko dagoelako eta premia dagoenean edozein lekutan sartzen gara.



ANGEL BIAIN |
HIRIGINTZA ZINEGOTZIA, OÑATI

Ez, kapital soziala oso garrantzitsua delako gure bizimoduan; etxean jendea hartzera ohituta gaude. Oñatin esaterako, ikasleendako egoitza txiki bat badago eta bali-teke eskariari erantzuteko aukera izatea, baina ez dut uste gurean lekua izango luketenik; agian, hiri handietan izango dute.



VALEN MOÑUX |
APAREJADOREA

Badago merkatu zati bat hor eta kontratistek badakite; gainera, nahiago izaten dute etxe txiki bat egin, handi bat baino. Hala ere, ez dut interesgarri ikusten babes ofizialekoak izatea, hau da, erre-kurto publikoekin egitea. Kontratistendako errentagarria izango da eta aprobetxatuko dute.

Egunkarietako harribitxiak

IDAZLEAK IRAKURLE

Zapatuan Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekimen antolatuta dituzte, eta liburuaz izango da protagonista. Horren harira, *Garak* idazleak bilakatu nahi izan zituen atzo protagonista eta 18 idazle ezagun irakurtzen jarri zituen. Hala jakin genuen, esaterako, Toti Martinez de Lezearen liburu kuttuna *La reina Margot* dela.

'Gara'

2005-04-17



EUFRATESEN URAK GORRIZ TINDATU ZIRENEKOA

Datorren domekan, apirilaren 24an, 90 urte beteko dira XX. mendeko lehen genozidioa hasi zenetik. Armeniar herria deuseztatzeko, Turkiak 1,5 milioi eta bi milioi lagun inguru akabatu zituen bere politika hiltzailearekin. Europa gerran zegoen; I. Mundu Gerran, hain zuzen. Turkiak Alemania eta Inperio austriar-hungariarrarekin bat

egin zuen, Ingalaterra, Frantzia eta Errusiaren aurka. Baina kanpoko gerra horren moztarpean, Turkiak armeniar herriaren aurkako garbiketara etniko planifikatua jarri zuen martxan. Turkiako Gobernuak armeniarren kontra eramandako planak hiru ardatz zituen: intelektualak, gizonak eta deportazioa.

'Berria'

2005-04-17



Tira, tira...



Carrollo arriskutsua da, baina txarrena liburuak dira.

Zulet 'El Diario Vasco' | 2005-IV-17

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

ARBUIATU EGITEN ZAITUT MUÑOZ JAUNA

Baina badakigu lehenengo mailako eta laugarren mailako biktimak daudela. Bada, zuri gustatu ez arren, gu lehenengo mailakoak gara, polizia nazional batek -emaztearen konplizitatearekin- eta haren semeak hil zutelako nire senar eta seme-alaben aita. Justizia eskatzen dugu baina etor dadila euren lana maite dutenengatik, ez dirua.

Mari Carmen Mañas (Berruetaren alarguna)

2005-04-17

'El Pais'

KONKLABEAREN ORDUA

115 kardinal hautesleak bihurtik aurrera batuko dira Juan Paulo II.aren ordezkora hautatzeko. (...) Arlo asko daude kontuan hartzeko eta Elizaren printzeek jokoan dute nola aurre egin milaka fededun dituen instituzio horren etorkizunari. Kontuan izanda, ezin izan dituela estali hainbat zulo Juan Paulo II.ak, karisma handikoa izan arren.

Editoriala

2005-04-17

'El Mundo'

GUTIERREZ, CHAVEZ ETA FUJIMORI

Ekuadorreko lehendakaria saiatu da jendea konbentzitzen uniforme berdea laga duelako aitzakiarekin, eta horrek sortu du Iberoamerikako eta Europako kantzelaritzak larritu dituen krisi instituzionala. Lucio Gutierrezen ibilbidea Chavezenaren antzekoa da, baina azken hilabeteetan urrundu egin da Chavezengandik irudia hobetzeko.

Editoriala

2005-04-17

'Deia'

FAXISMOAK HOR JARRAITZEN DU

Santiago Carrillok ultraeskuindar talde baten aldetik jasandako erasoak gaintututa zeudela uste genuen garaietara garamatza. Mikel Martin euskaldunak ere argitu gabeko erasoak jasan zuen, erasotzaileak identifikatuta egon arren. Halakoak analizatzea oso mesedegarria litzateke eta baita ideologia hori bultzatzen dutenak seinalatzea ere.

Editoriala

2005-04-17

Zorroztailea



Hemen bizi

Espainiako Lan Ministroak "oso positibotzat" jo du Erroldatze Kontseiluaren ebazpena. Finkatzen du zazpi izango direla etorkinek Espainian 2004ko abuztuaren 8a baino lehen bizi direla egiaztatzeko agiri publikoak(...)
Horretarako udalek bakarrik jaso behariko dute atzerriarrak abuztuaren 8a baino lehenagoko egonaldia egiaztatzen duen agiri bat aurkeztu duela.

'El Pais' | 2005-04-16

Elena Laka

Badaukat lagun bat bost urte daramatzana identitate agiria (NAN) iraugita. Hasieran pentsatu zuen berriztatzea. Alperkeriagatik atzeratu, argazkia ez ateratzeagatik edo, eta bost urte pasatu zaizkio. Denbora horretan, iraugitako karneta erakutsita, arazorik gabe lan egin du, etxe bat erosi du, zergak ordaindu ditu eta dirulaguntzatxo bat ere jaso du. Bozkatu ere egin du, lege-agiriak sinatu ditu eta Europan barrena ere ibili da pixka bat. Inork ez du molestatu, inork ez dio ezer galarazi. Lagunaren ustea da, halaber, inposatutako nazionalitate batek babestuta daukala kadukatutako agiri hori. Eta borondatezkoa ez zaion nazionalitate horri esker lasai samar bizi dela munduko bazter honetan, bertan jaioa delako.

Badaukat beste lagun bat bere nazionalitatearekin gustura dagoena. Ez da deskuidatzen bere herriko agiria ez berritzen. Hala eta guztiz ere, nahiz eta hemen lan egin nahi duen, etxe bat erosi, zergak ordaindu nahi dituen, ezin du. Lagun horri ez diote lagatzen. Jaio-terria, inork aukeratzen ez duen hori, ez duelako munduko bazter hau.

Madriko Gobernuak esandako paperen bidez erakutsi behar du iazko abuztuaren 8a baino lehenagotik bizi dela hemen. Horretan dihardu, paperak biltzen, lege bete behar guztiak konplitzeko ahaleginetan. Aurkeztuko ditu agiria eta eskaera Udalean errolda data zabal diezaioten. Egingo ote diote. Tokatzen zaio, iraugitako paperduna bezain laguna dudalako. Eta bakoitzari berea zor zaiolako. Alegia, justizia horrela definitzen delako.

"Badaukat lagun bat bost urte daramana nortasun agiria iraugita. (...) Inork ez du molestatu, inork ez dio ezer galarazi"

"Badut beste lagun bat. Haren jaioterria ez da hau. (...) Paperak batzen ari da lege bete behar guztiak konplitzeko ahaleginetan"

KIROLA

- Eskoriatzak, Iruñean irabazita, jaitsiera postuak atzean utzi ditu | 21
- Olaizolak egundoko jipoia eman zion Lasa III.ari Bergaran | 22



Juan Carlos Davila
saskibalo
entrenatzailearekin
hitz egiten jardun
dugu | 23

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Gari Urangak zaleekin berriz adiskidetzeko gola sartu zuen Deportivoren aurka, eta gainera eurei eskaini zien gola.

REALA | ZALEEI ZOR ZAIEN ERRESPETUAGATIK GUTXIENEZ ETXeko PARTIDUAK IRABAZTERA IRTEN BEHAR DU REALAK

Zaleekin berriz adiskidetzeko aukera paregabera du Realak



Jokin Etxebarria

Aste guztian zehar entzun dugu, San Mamesen galdu eta gero, talde txuri-urdina helbururik gabe gelditu dela denboraldi bukaera arte. Ez dut uste horrela denik. Dagoneko ez dago jaitsiera postuengatik beldurto beharrik, eta UEFAko postuak nahikoa urrun

Deportivoren aurka jokoa berreskuratu zuen Realak, eta zaleak gustura utzi zituen. Berdina egin beharko dute Real Madril, Malaga eta Bartzelonarekin

gelditzen dira. Baina hori San Mamesen jokatu aurretik ere horrela zen. Eta zapatuan Deportivo irabazi ostean, aurreko asteko egoera berdinean gaude orain. Hori bai, diferentzia batekin: Realaren jokoa. Zapatuan, lehen zatian batik bat, Amorrorturen taldeak bigarren gelditu zen urte hartako Real eka- rri zion gogora bati baino gehi- gori. Deportivo mendean eduki zuen, eta joko polita erakutsi zuen. Realaren aurretik dauden taldeek –Deportivo, At. Madril eta Valentziak– ez dute gehiegi era-

kutsi, eta denboraldi hasierako larritasunak apur bat txikiago- ak izan balira, hor goian egongo ginatkeela pentsatzeak pena ematen dit.

Hala ere, eta helburuetara bueltatuz, gauza bat argi dago: Realak zaleekin adiskidetu beha- rra dauka, eta horretarako auke- ra polita dauka Anoetara etorri- ko diren taldeak kontuan hartu- ta. Lehenengo pausua eman zuen zapatuan, eta hurrengoa Real Madrilen aurka irabazita eman dezake. Gainera, beti hobe- za izaten da denboraldia garaipenekin amaitzea, hurrengo denboral-

diari begira zapore onarekin amaitzen duzu eta.

MLADENOVIC ETA BARKERO

Mladenovicek datorren urtean hemen jarraituko duen edo ez erabakitze dago oraindik, eta horregatik, minutuak emango dizkio Amorrortuk. Titular jokatu duen bi partiduetan nahiko lan txukuna egin du, baina atzerri- tar batek gehiago erakutsi beha- rko lukeela uste dut. Beste kasua Barkerorena da; azken parti- duetan egin duen lana ikusita, ez dut ulertzen orain arte zergatik ez duen gehiago jokatu.

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• ZEIN HELBURU EDUKI BEHAR LUKE REALAK DENBORALDI AMAIERA ARTE?



JOSE LUIS ETA ALBERTO |
ARRASATE

“Jokoarekin ondo pasatzera irten behar dute eta zaleei gozatu batzuk ematera”

“Ez dute ezer jokoan eta hemendik aurrera jokoarekin ondo pasatzera irten behar dute, eta Anoetako zaleei gozatu batzuk ematera, bide batez. Gainera Real Madrili liga irabaztea eragozten badiogu, hobeto”.



JON |
ARRASATE

“Ahal izanez gero Athletic baino lehenago gelditu”

“UEFAra ez da iritsiko, baina partidu denak irabazi beharko lituzke, eta ahal izanez gero Athletic baino lehenago gelditu”



OLATZ ETA IDOIA |
BERGARA

“Datorren urterako fitxaketetan pentsatzen hasi beharko dira”

“UEFA urrun gelditzen da eta hurrengo partiduetan barregarri ez gelditzearekin nahikoa izango dute, nahiz eta zapatuan ondo jokatu zuen. Datorren urterako fitxaketetan ere pentsatzen hasi beharko dira”.



KEPA, ASIER ETA IGOITZ | OÑATI

“UEFA izan behar da helburua. Oraindik denbora dago eta ondo jokatzeko dabil”

“UEFA izan behar da helburua. Oraindik denbora dago eta azken aldian ondo jokatzeko dabil. Aurrean Kovacevic, Gari Uranga eta Karpin maila ona ematen dabilta, eta atzean Labakak eta konpainiak lan txukuna egiten dute”.



MIKEL, ANTON ETA HARTZA | OÑATI

“Helburua beteta dago dagoeneko, baina Real Madrili irabaztea derrigorrezkoa da”

“Helburua beteta dago dagoeneko, eta nahikoa egin dute. Harrobiarekin jokatu dutela egia da, baina diru premiagatik izan da. Hemendik aurrera Real Madrili irabaztea derrigorrezkoa da, eta Bartzelonari irabazten badiote ere ondo”.

Athletic

Rafa marrazainak adierazitako penaltiak eman zituen hiru puntuak

Lo hartzeko moduko partidu bat izan zen legezko denbora arte, baina hortik aurrera Rafa Guerrero agertu zen



Jon Unamuno

Rafa marrazain famatua izan zen partidu txarraren protagonista nagusia. Izan ere, berak adierazitako penalti baten ondorioz lortu zuen Athleticen garaipena.

Taldea nekatuta ikusi genuen atzokoan, ideiarik gabe eta jokalarik garrantzitsu batzuen arteko ekarpen hutsarekin. Yestek egindako partidu eskasa benetan harritzekoa da. Baloiak galtzeaz gain, ez zuen batere lagundu. Atzean, ohi denez, arazo asko sortu zituzten eurak bakarrik. Eskerrak Racingeko jokalariek ez zituztela aukerok aprobetxatu.

Partidua bukatzeko minutu gutxi falta zirela, Lakruzek gola zihoan baloi bat buruarekin aldendu zuen. Hori izan zen Racingek izandako aukerarik onena. Hiru minutu luzatu zituen epaileak eta hiru minutuak bete zirenean hasi zen partiduaren gatza.

Athleticek eskumatik egindako erdiraketa batek Juanma-ren zangoan jo zuen eta ondoren besoan. Baloia berriro korne-rrean irten zen. Athleticeko jokalarik batzuk kexatu egin ziren baloia besoan jo izanagatik eta hara nor agertu zen partiduan: “Rafa no me jodas” famatua. Penaltia adierazi zuen. Racingeko jokalarik guztiak gerturatu zitzaizkion eta denetik esan zioten, baina Rafa, ohi duen legez, serio mantendu zen. Hartutako erabakiak ez zuen atzera bueltarik. Penaltia nork jaurtitzea zen hurrengo galdera. Orbaizek hartu zuen ardura hori. Minutu askoren ostean heldu zen momentua eta, gaizki jaurti arren, barrura joan zen baloia.

Racing berdinketaren bila ero-ero joan zen eta Aoute atezaina Athleticen areara igo zen. Euren asmoa baloia hantxe ipintzea zen, baina gaizki jardun zuten lan horretan. Saiatu ziren hiru alditan Athleticen jokalariegan jo zuen baloia. Azkenekoan Tikok hartu zuen eta

RACING

0-2
ATHLETIC

Racing | Aoute, Oriol, Mora, Juanma, Regragui, Regueiro, Torrado, Moran, Parri (Jonathan 78. min.), Benayoun eta Javi Guerrero.

Athletic | Arantzubia, Iraola, Gurpegi, Lakruz, Casas (Del Horno 64. min.), Tiko, Orbaiz, Solabarrieta (Urzaiz 53. min.), Etxeberria, Yeste (Guerrero 71. min.) eta Ezkerro.

Golak: 0-1 Orbaiz (97. minutuan), 0-2 Tiko (98. minutuan).

Epailea: Rodriguez Santiago. Ondo adierazi zituen partiduaren nondik norakoak.

Bikain

LAKRUZ

Atepetik ateratako baloiarengatik bakarrik bikaina merezi du Marik. Hortxe egon zen partiduko gakoa. Gola izanez gero, partidua galduta zegoen.

Kaskar

YESTE

Aurrealdean ez zen fin ibili atzokoan eta defentsa lanetan duen jarrera gutziz lotsagarria da. Izerdi tanta bat ere ez zuen bota.

eskumatik aurrera jota, atezain gabe zegoen atera jaurti zuen baloia. 0-2, sinesgaitza, baina erreala.

UEFA GERO ETA GERTUAGO

Aurreko asteetan esan bezala, matematikoki oraindik aukerak daude eta aste honetan aukera horien balioa handiagotu egin da. Postu horrek lortu nahi dituzten taldeak ez dira fin ibili jardunaldi honetan eta Santanderren lortutako garaipenak asko gerturatu du talde zuri-gorria. Eta, eguaztanean Kopako lehenengo partidua izango dugu Betisen kontra.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Racing-Athletic	0-2
Vila-real-Betis	0-0
Reala-Deportivo	1-0
At. Madril-Espanyol	0-0
Levante-R. Madril	0-2
Mallorca-Valentzia	0-0
Bartzelona-Getafe	2-0
Sevilla-Osasuna	0-1
Zaragoza-Numantzia	4-1
Albacete-Malaga	1-2

HURRENGOAK

Valentzia-Albacete
Osasuna-At. Madril
Malaga-Bartzelona
Deportivo-Racing
Betis-Reala
Athletic-Sevilla
Espanyol-Zaragoza
Getafe-Levante
Numantzia-Mallorca
R. Madril-Vila-real

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	72	32	22	4	6	61	25
2. Real Madril	66	32	21	8	3	57	28
3. Vila-real	52	31	14	7	10	52	27
4. Sevilla	52	32	15	10	7	37	35
5. Betis	51	32	13	7	12	52	42
6. Espanyol	50	32	14	10	8	41	39
7. Valentzia	49	32	12	7	13	47	34
8. Athletic	47	32	13	11	8	52	42
9. At. Madril	47	32	13	11	8	36	26
10. Deportivo	46	32	11	8	13	40	38
11. Zaragoza	46	32	13	12	7	41	43
12. Reala	42	32	12	14	6	41	45
13. Getafe	39	32	10	13	9	32	38
14. Malaga	39	32	11	15	6	32	41
15. Osasuna	37	31	10	14	7	37	53
16. Levante	35	32	9	14	8	36	48
17. Racing	34	32	9	16	7	33	48
18. Mallorca	25	32	6	19	7	28	55
19. Albacete	24	32	5	18	9	28	47
20. Numantzia	23	32	5	19	8	23	52



Kinieles

KINIELA

1. Sevilla-Osasuna	2
2. Racing-Athletic	2
3. Reala-Deportivo	1
4. Vila-real-Betis	X
5. Levante-R. Madril	2
6. Barcelona-Getafe	1
7. Albacete-Malaga	2
8. Zaragoza-Numantzia	1
9. At. Madril-Espanyol	X
10. Mallorca-Valentzia	X
11. Recreativo-Valladolid	1
12. Sporting-Tenerife	X
13. Cadiz-Salamanca	X
14. Celta-Cordoba	2

Taldea nekatuta ikusi genuen atzokoan, ideiarik gabe

Azkeneko emaitza sinesgaitza da; dena den, puntu horiek berdin balio dute

PREFERENTE MAILA



AINZANE AGIRRE

Lazpiurrek botatako penaltia ezin izan zuen Pasaiaiko Baños atezainak gelditu.

Matematikoki mailari eustea lortu du Mondrak

MONDRA
1-0
PASAIJA

Mondra | Ander, Markel, Barbarias (Eldin 84. min.), Merkader, Lazpiur, Garmendia, Torres, Lopez, Loiti (Inazio 82. min.), Illart eta Asier (Bereziartua 77. min.).

Pasaia | Baños, Alvaro, Arrieta, Rodriguez, Lopez, Sereio, Otxoa, Julfin (Murillo 87. min.), Jonathan (Pikabea 69. min.), Seijas eta Vidal.

Golak: 1-0 Lazpiur.

Epailea: Cuadrado jauna. Ez zuen zailtasun gehigirik izan, baina asko korapilatu zen. Mondrako Lopez kaleratzeaz gain berak bakarrik daki zergatik - 6 minutuz luzatu zuen partidua etenik egon gabe.

Jokin Etxebarria

Mondrak egin ditu denboraldiko betebeharrak dagoeneko. Denboraldi osoan zehar taula erdian egon eta gero, zapatuan lortu zuen Josu Zubiaren taldeak matematikoki mailari eustea. Ez da gutxi, ibarreko beste taldeak zelanda dabilzan ikusita, eta lesioekin eta joandako jokalariekin izan dituen arazoak kontuan hartuz. Denboraldia bukatu arte, behintzat, lasai ibiltzeko moduan daude, eta hemendik aurrera jokoarekin disfrutatzera irten beharko dute.

ZELAIK JOKOARI KALTE

Aurreko egunean eta zapatuan bertan jauzitako euri jasak, Atxa-

balpeko zelaiari nahikoa kalte egin zion, eta baloiari korrika egiten eragozten zioten putzua nonahi aurki zitezkeen.

Bi taldeek ederki ulertu zuten baloia azpitik erabiltzea alperrik zela, eta baloi luzeak erabiltzeari ekin zioten. Noski, defentsak erasoei gailendu zitzaizkien eta aukera oso gutxi ikusi ahal izan ziren. Lehen zatia bukatzean zela baina, epaileak penaltia adierazi zuen etxekoan alde. Lazpiurrek ez zuen huts egin. Hurrengo jokaldian epailea berriz ere protagonista bihurtu zen Lopez kaleratzean. Bigarren zatian, etxekoak bat gutxiagoz egon arren ondo eutsi zioten Pasaiairi, eta kanpokoek ez zuten aukera garbirik sortu.

UDAK, bi gutxiagorekin, 94. minutuan galdu zuen

BETI GAZTE

3-2

UDA

Beti Gazte | Susperregi, Iñigo, Imanol, Zudaire, Telletxea, Irazoki, Irigoien (Apeztegia 78. min.), Xabier (Jimena 62. min.), Larralde (Saralegi 78. min.), Maia eta Txoperena.

UDA | Aitor, Raul, Oxel, Unai, Eriko (Iñaki 72. min.), Unamuno, Igartua (Iturbe 59. min.), Orueta, Azkue (Lur 78. min.), Alvaro eta Andoni (Oinatz 49. min.).

Golak: 1-0 Larralde. 1-1 Igartua. 2-1 Larralde. 2-2 Iturbe. 3-2 Iñigo.

Epailea: Etxarri jauna. UDAko bi jokalaririk botatu zituen arren, ez zen horren gaizki ibili.

A.G.

Partidu garrantzitsua zen atzokoa. Lesakarrak puntu bat gaitetik zeuden sailkapenean, eta irabaziz gero, hauek atzean uzteaz gain jaitsiera postuetatik urruntzea lortuko zuten. Baina ez zen horrela izan.

Nahiz eta partidua guztian baloiaren jabe izan, eta aukera onenak eduki, estrategia jokaldietan Beti Gaztekin min handia egin zuten aretxabaletarrei. Hiru golak, azkeneko epaileak amaiera adierazi baino minutu bat lehenago horrela sartu zituzten. Horri gaineratzen badiogu bi jokalaririk gutxiagorekin bukatu zutela partidua, ahaleginek ez zuten askorako balio izan.



JON UNAMUNO

Zubikararen golaren ospakizuna. Gero, bere orkatila eta partidua okertu ziren.

Bi goletako abantaila ezin izan zuten aprobetxatu

BERGARA

2-2

ANAITASUNA

Bergara | Sesma, Loiola, Arana, Aitor Berraondo, Lete (Elkorobereziabar 45. min.), Oskar, Otero, Alzola, Imanol (Martin 74. min.), Zubikarai (Garin 29. min.) eta San Vicente (Alejandro 70. min.).

Anaitasuna | Del Rio, Elizalde, Alkorta, Arkaitz, O. Aranbarri, Ortiz, Mendizabal (I. Aranbarri), Bastida (Egidazu 76. min.), Gari, Exposito eta Aristi (Aramendi 72. min.).

Golak: 1-0 Arana. 2-0 Zubikarai. 2-1 Mendizabal. 2-2 Mendizabal.

Epailea: Andoni Labaka. Ondo.

ran berdin jarraitzen dute. Hala ere, Azkoitian Garinek sartu zuen golari esker, bien arteko puntu berdinketa alde du Bergarak.

Eguraldiak eragin zuzena izan zuen partiduan, izan ere, lehenengo gola zelai irristakor zegoelako etorri zen. Del Rioren hanka azpitik pasa zen baloia, eta botea eman beharrez lurraren arrasean joan zen. Minutu gutxira Zubikararen gola etorriko zen. Momentu horretan sartu zen Anaitasuna partiduan. Mendizabalek eskuetik min handia egiten zuten, baina gola ezkerretik egindako erdiraketa baten ostean etorri zen.

BIGARREN ZATIAN ESKAS

Anaitasuna izan zen jaun eta jabe bigarren zatian. Gola lehenaren berdina izan zen. Hala ere, partidua amaitzeko gutxi falta zela, Garinek buruz aukera paregabea izan zuen, baina oraingoraino Del Riok ondo gelditu zuen.

Jon Unamuno

Partidu garrantzitsua zuen Bergarak zapatuan Anaitasunaren kontra. Sailkapenean puntu berdina dituzte eta partidua amaie-

Puntu baliotsua atera zuen Aloñak Mutriku zelaian

MUTRIKU
2-2
ALOÑA

Mutriku | Bernabe, Zubiaurre, Azkarate, Agirrezabala, Lopez, Mugerza (Bosque 84. min.), Txurruka, Osinalde (Pagoaga 72. min.), Garalde (Belaustegi 64. min.), Agirretxea eta Arreitunandia (Prieto 80. min.).

Aloña | I. Idigoras, Lopez (Olalde 46. min.), Sanchez, Losada, Astola (Garmendia 78. min.), Barrena (Murgoitio 75. min.), Garai, Astigarraga (Biain 46. min.), Albizu (Aramendi 71. min.), Moiu eta U. Arregi.

Golak: 1-0 Txurruka. 2-0 Arreitunandia. 2-1 Moiu. 2-2 Garmendia

Epailea: Casanova. Etxekoan alde.

A.G.

Beste behin ere azkeneko minutuetan lortu zuen Aloñak puntu bat. Aukera asko izan zituzten bi taldeek. Garrantzitsua izan zen 2-0 zihoazenean Moiuak buruz sartutako gola. Atsedendira minutu gutxi falta ziren eta gol psikologikoa izan zela esan daiteke.

Bigarren zatian Aloñak aukera batzuk izan zituen, baina gola ez zen 85. minutura arte iritsi.

BOLADA ONEAN

Badirudi Aloñak ez duela arazo berezirik izango maila mantentzeko. Oraindik ezin daiteke ezer ziurtatu, baina azkeneko jardunaldietan puntu garrantzitsu



Lan asko egin zuen Albizuk.

batzuk ateratzen dihardute Aitor Oruetaren mutilek. Hala ere, matematikoki lortu arte, puntuak lortzen jarraitu beharko da.

• SENIOR MAILAKO NESKAK



AINTZANE AGIRRE

BERGARA 3 - AÑORGA 3

Gaizki hasi zen partidua; izan ere, lehenengo zati amaieran 0-2 aurreraturik zihoazen añorgarrak. Bergarako neskek ez zuten lehen zati ona egin. Bigarren zatia bestelakoa izan zen. Alkortak egin zuen lehenengo gola. Ondo jokatzeko zebilena Ber-

gara eta jokaldi polit baten ostean etorri zen Oihanaren gola. Hala ere, amaitzeko hiru minutu faltan, Añorga berriro aurreratu zen. Hurrengo minutuan, Oihanak erdiraketa gaizto bat egin zuen eta Añorgako defentsak bere atean sartu zuen.

• OHOREZKO GAZTEAK

Zelai erdian ez zuen joko onik egin UDAk eta galdu egin zuen

UDA	2-3
MARTUTENE	

A.G.

Ez zuten partidu ona jokatu zapatuan Ibarren UDAko gazteek. Martutene taldea izan zuten aurkari.

Partidua ederki hasi zen etxeko taldearendako, eta gol aukerak izan zituen. Hauetakoa bat lehen zatian etorri zen. Jokoa ez zen ona, baina emaitza alde zuten aretxabaletarrek. Bigarren zatian, gainbehera etorri zen. Epaileak, Arriaran jokalaria kanporatu zuen, eta UDA hamar jokalarirekin gelditu zen. Egoera hau aprobetxatuz, Martutenek erasora jo zuen eta hiru gol egin zituen. Zelai erdian huts asko egin zuten etxekoak. Hala eta guztiz ere, bigarren gola egin zuten. Jokalari aldatetak egin zituen etxeko taldeak, berdinketa lortzeko asmoz, baina azkenean ez zen gehiagorako denborarik egon, eta hiru puntuak Martutene aldera joan ziren.

• OHOREZKO GAZTEAK

Herizek lau gol sartuta hiru puntuak eman zizkion Mondrari

MONDRA	5-2
ANAITASUNA	

Jokin Etxebarria

Denboraldi gogorra da Mondrako gazteak pasatzen dabilzana. Talde ona izan arren, jaietsiera postuetatik oso hurbil ibili dira denboraldi osoan. Hala ere, badirudi, azken partidu hauetan esnatzen hasi direla, eta Anaitasunaren aurka jokatu zuten bezala jokatuz gero, ez dute maila mantentzeko zailtasunik edukiko.

Lehen zatian utzi zuten erabakita partidua etxekoek. Zelai bustira hobeto moldatu ziren Anaitasunakoak baino, eta baloi luzeekin, Herizen abiadura erabili zuten erasoko joko bezala. Min handia egin zuen Herizek gainera, bi gol jarraian sartuta. Bigarren zatian markagailua eustera irten ziren etxekoak. Eta hori egiteaz gainera, Herizek beste bi gol ere egin zituen. Denak kontraerasoan. Kanpoak, bi gol egin arren, ezinean ibili ziren partidu guztian.

• 1. MAILAKO GAZTEAK

Partidu on eta gogor batean hiru puntuak etxean

BERGARA	3-0
ILINTXA	

Jasone Zabala

Partidu gogorra jokatu zuen zapatuan Bergarak Ilintxaren aurka. Legazpiarrak ere sailkapenean goialdean daude, eta beraiek izan dira bergararrei orain arte irabazi dieten bakarrak.

Partidu gogor eta ona ikusteko aukera izan genuen. Lehen zatian, partidua erabakita utzi zuen etxeko taldeak, eta 3-0 heldu ziren atsedendira. Lehen bi golak Ibon Leibarrek sartu zituen, eta hirugarrena Mikel Salegik.

Bigarren zatian, legazpiarrak borrokan jarraitu zuten, baina etxekoak fin aritu ziren defentsan, zelai erdian eta baita erasoan ere. Azkenean, hiru puntu garrantzitsu David Lopez de Abetxukok entrenatzen dituen mutilendako. Datorren astean UDaren aurkako derbya izango dute, eta hori ere partidu gogorra izango da.



Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

BOLADA ONARI JARRAIPENA EMAN BEHAR ZAIO

Azken postuetatik aldendu nahian dabilta ibarreko lau taldeetatik hiru. Mondra nahiko "lasai" egon daitekeela esan dezakegu, atzo lortutako garaipen bikainarekin. Hamar talde daude mailaz ez jaisteko borrokan, eta berdintasun horrek ekartzen du, arriskatu nahi duen talderik ez egotea. Batik bat, azken txanpa dela kontuan hartuta. Puntu bat ezer baino hobea da, baina arriskuak oraindik ere hor jarraitzen du, eta gero eta partidu gutxiago gelditzen dira amaierarako.

Emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA			BESTELAKOAK	
Sailkapena	Punt.	J.	Emaitzak	
1. Tolosa	67	32	Mondra-Pasaia	1-0
2. EHU	65	32	Beti Gazte-UDA	3-2
3. Ordizia	60	32	Orioko-Touring	4-1
4. Real Union	55	32	Urola-Zarautz	2-0
5. Zarautz	54	32	Ordizia-Zestoa	2-0
6. Trintxerpe	51	32	Mutriku-Aloña Mendi	2-2
7. Mondra	45	32	Oiartzun-Tolosa	1-1
8. Zestoa	43	32	Bergara-Anaitasuna	2-2
9. Hondarribia	42	32	Hondarribia-R. Union	1-1
10. Mutriku	41	32	Trintxerpe-EHU	2-0
11. Pasaia	40	32	Hurrengoak	
12. Touring	39	32	EHU-Mondra	
13. Beti Gazte	38	32	Pasaia-Beti Gazte	
14. Aloña Mendi	38	32	UDA-Orioko	
15. Orioko	36	32	Touring-Urola	
16. Urola	35	32	Zarautz-Ordizia	
17. Anaitasuna	35	32	Zestoa-Mutriku	
18. Bergara	35	32	Aloña Mendi-Oiartzun	
19. Aretxabaleta	34	32	Tolosa-Bergara	
20. Oiartzun	19	32	Anaitasuna-Hondarribia	
			Real Union-Trintxerpe	

OHOREZKO GAZTEAK		
UDA-Martutene	2-3	
Arrasate-Anaitasuna	5-2	

LEHEN MAILAKO GAZTEAK		
Amaiak Bat-Arrasate	3-1	
Kostkas-UDA Arizmendi	3-1	
Bergara-Ilintxa	3-0	

BIGARREN MAILAKO GAZTEAK		
Eibartarrak-Antzuola	0-1	
Bergara	Atsedena	

KADETEEN OHOREZKO MAILA		
Texas Lasartearra-Aloña Mendi	4-3	
Aldapetarrak-Arrasate	2-1	
Bergara-Zarautz	0-5	

LEHEN MAILAKO KADETEAK		
Urola-UDA Arizmendi	3-3	

BIGARREN MAILAKO KADETEAK		
UDA Arizmendi-Euskalduna	0-2	
Urki-Bergara	0-8	
Antzuola-Soraluze	10-0	

EMAKUMEZKOEN LIGA (IGOERA)		
Anaitasuna-Aloña Mendi	5-1	
Almen UDA-Tolosa	1-3	
Mondra-Intxaurdi	1-4	
Bergara-Añorga	3-3	

EMAKUMEEN F-8 LIGA (KOPA)		
Bergara-Gasteiz Cup	1-5	
Antzuola-Almen Arizmendi	1-1	
Almen UDA-Elgoibar	4-2	

INFANTIL OHOREZKO MAILA		
UDA Arizmendi-Antiguoko	0-7	

INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)		
Amara Berri-Aloña Mendi	2-6	
Bergara-Beti Ona	2-0	

INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)		
Aitzgorri-Arrasate	0-2	

INFANTIL TXIKI (KOPA)		
UDA Arizmendi-Real Union	4-0	

INFANTIL F-8 (AZKEN FASEA)		
Ordizia-Antzuola	1-1	
Urki-Aloña Mendi	3-5	
Bergara	Atsedena	

ALEBINAK (2. FASEA)		
UDA-Billabona	6-0	
Bergara-Anaitasuna	1-6	
Aloña Mendi-Euskalduna	8-2	
Arrasate-Aitzgorri	4-0	

BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)			
Sailkapena	Punt.	J.	Emaitzak
1. Lasarte Oria	19	10	La Salle-Zestoa 7-1
2. Amaro	18	9	Urki-Antzuola 4-0
3. Urki	18	10	Lasarte Oria- Amaro 1-1
4. La Salle	17	10	Donibane Atsedena
5. Antzuola	11	9	Hurrengoak
6. Zestoa	6	9	Antzuola-Zestoa
7. Donibane	3	9	Amaroz-Urki
			Donibane-Lasarte Oria
			La Salle Atsedena

• LEHENENGO NAZIONALA

Porrotarekin agurtu zuen denboraldia Arrikruztek

Zituen baja garrantzitsuak asko nabaritu zituen taldeak bai defentsan eta bai erasoan

ARRIKRUTZ

21-29

TOLEDO

Arrikruz | Galarza, Joseba (2), Pata (1), Zelaia (4), Jose Manuel, Rafa (5), Ioritz, Elgarresta (2), Gari (4), Perosterena (2), Zurutuza eta Erik (1).

Toledo | Mario (4), Alvaro (4), Fco. Miguel (2), Ruben (6), Egea, Alejandro (2), Romero, Toboso (6), Ballesteros (1), Aguardo, Marin (1) eta Vecino(3).

Golak bost minuturo: 1-3; 1-7; 2-9; 4-10; 5-11; 8-14; 10-17; 12-18; 14-21; 15-25; 20-28; 21-29.



ARTXIBOA

Garik dakien moduan agurtu zuen denboraldia. Partiduko eta denboraldiko azken gola berea izan zen.

Jon Unamuno

Denboraldiko azkeneko partidua jokatu zen Zubikoan. Helburua lortuta, zaleei garaipen bat eskainiz agurtu nahi zuten denboraldia, baina jokalaririk asko eta garrantzitsuak falta izan ziren zitan.

Golak sartzea asko kostatu zitzaizen hasierako minutuetan,

eta ondorioz abantaila handia hartu zuen Toledok. Hasierako karga hori ezin izan zuen gainditi Arrikruztek eta garaipena lortzeko inongo aukerarik ez zen egon.

URTEKO BALORAZIOA

Denboraldi hasieran helburua mailan mantentzea izan zen eta hori lortu dutenez, ontzat eman

daiteke denboraldia. Hasiera baten Zubikoaren bultzadak eman zizkion puntuak Arrikruzte. Zaleek txalo zaparrada bat merezi dute eta zapatuan hala eskaini zien Arrikruzte taldeak partidua amaieran.

Denboraldiko bigarren zatian arazo gehiago izan dituzte partidua irabazteko. Arrazoi asko aipa daitezke, baina nagusia

nekea izan dela esango nuke. Orain, hurrengo denboraldiari begira, ziurgabetasuna da nagusi. Jokalari beterrano askok taldea lagako dute eta ondorioz, taldearen maila asko jaitsiko da. Zer gertatuko da hurrengo denboraldian? Mailan jarraitu, mailako plaza saldu eta kategoria bat edo bi jaitsi, Debagoieneko talde bat atera... denborak esango digu.

• LEHEN TERRITORIALA



AINZANE AGIRRE

VERKOL ALOÑA 19 - LEIZARAN 17

Erritmo baxua izan zuen Kopako lehenengoak. Hala ere, garaipena lortu zen eta ez da gutxi. Oreak handia izan zuen partidua guztiak, baina oñatiarrak beti izan ziren aurretik. Aipatzekoa da Ainhua Unamunok taldeko lehenengo zazpi golak sartu zituela. Liga bosgarren postuan bukatu zuten aurreko astean eta hemendik aurrera Kopa jokatzeko jardungo dute Verkoleko neskek. Denboraldiari amaiera polita emango lioke taldeak Kopan zerbait erakargarria eginez gero. Irabaztea beti izaten da zaila, baina horren bila abiatu behar dute.

• GAZTE MAILA (GIPUZKOAKO KOPA)



AITOR LIZARRALDE

GATZ MUSEOA JAKION 23 - UROLA 17

Erraz irabazi zuten Arrasateko gazteek partidua domekan. Kontuan edukita, Urolakoak kadete batzuekin etorri zirela eta titularrak diren hiru jokalaririk ez zirela etorri, ez zitzaizkien zaila egin garaipena lortzea. Lehen zatian nahiko ondo ibili ziren etxekoak. Defentsa sendoarekin baloi ugari berreskuratu zituzten, eta kontraerasoan gol asko sartuz 14-6ko emaitzarekin heldu ziren atsedendira. Baina bigarren zatian erlaxatu egin ziren, eta lehen zatian baino zailtasun handiagoak izan zituzten golak sartzeko.

• EUSKADIKO TXAPEL.

Jipoi ederra jaso zuten bergarrek

A.G.

Zarautzi egin zion bisita Bergarak zapatuan, eta porrot handia jaso zuen, 42-27 galdu baitzuen. Gol gehiago ere izan zitezkeen, baina atezain bergararra fin aritu zen. Oso gaizki jokatu zuten Landerren mutilek.

• LEHEN TERRITORIALA

AGRk ezin izan zion irabazi Deusturi

A.G.

Igoera faseko bigarren postua galdu zuen zapatuan AGRk Deustuko taldearen aurka 31-28 galdu eta gero. Lehenengo zatian defentsan egindako lan eskasa izan zen porrotaren gako; bigarren zatian ere ez ziren finegi ibili.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILAKO ESPAINIAKO LIGA

Arrikruz Oñati-Toledo 21-29

SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

Zarautz-Bergara 42-27

LEHEN TERRITORIALA (IGOERA)

Deustu Loyola-AGR Arrasate 31-28

LEHEN ETA BIGARREN TERRITORIALA (KOPA)

Urnietako-Arrasate 33-17

Aloña Mendi-Usurbil 20-27

ITE Hondarribia-Bergara 30-26

SENIOR MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-Leizaran 19-17

GAZTE MAILAKO MUTILAK

Gatz Museoa Jakion-Urola 23-17

Aloña Mendi-Arrate b.b.

GAZTE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO KOPA

Arrasate-Zarautz 4-35

Bergara-Verkol Aloña b.b.

KADETE MAILAKO MUTILAK

Aloña Mendi Atsedena

Donibane-Bergara 19-47

KADETE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO KOPA

Verkol Aloña-Sanlo Elgoibar 24-18

• LEHEN MAILA (FEDERAZIO KOPA)

Hutsak-huts, erraz irabazi Mugarrik

Lehen laurdenean lortutako abantaila partidu guztian zehar mantentzearekin nahikoa izan zuten, nahiz eta huts askotxo egin

MUGARRI ALKESA
93-82
CONSMETAL

Mugarri Alkesa | Gamarra (17), Mella-biabarrena (2), Mikel Biain (5), Basauri, Herzog (2), Kintana (21), Alarcia (22), Aramburu (4), Iñigo Biain (18) eta Isasa (2)

Consmetal | Diez (5), Gamuza (21), Etxeberria, Sobrino, Uzarraga, Alberdi, Labiano, Les (17), Zororiain (4), Davila (19), De la Sen (3) eta Zalba (13).

Laurdenetako emaitzak: Lehen laurdena: 28-16. Bigarren laurdena: 41-29. Hirugarrena laurdena: 65-53. Laugarren laurdena: 93-82.

Jokin Etxebarria

Hasieran zirudiena baino errazagoa izan zen arrasatearrentzat Consmetal Iruñako taldearen aurka garaipena lortzea.

Iruñarrak etxekoak baino postu bat gorago zeuden sailkapenean, aurreko bi partiduak irabazi eta gero. Baina Zurutuaren mutilek lehen laurdenean

lortutako 12 puntuko abantaila partiduan zehar mantentzearekin nahikoa izan zuten. Azken minutuetan huts askotxo egin arren baloia erasora ateratzeko orduan, kanpokoek ez zuten partidua irabazteko aukerarik eduki.

JOKO POLITA LEHEN LAURDENEAN

Zurutuzaren mutilek, joan den asteko porrotaren ondoren, saskibaloian jokatzeko ez zaiela ahaztu erakutsi zuten lehen laurdenean. Bikain mugitu zuten baloia alde batetik bestera, beti ere saskiratzeak lortzeko postu onena bilatzen, eta kanpokoak zora-biatu egin zituzten jokaldi polit asko eginez. Gainera, kontrerasoan ere min egin zuten, eta iruñarrak guztiz galduta ibili ziren. Erraz lortu zuten 12 puntutako abantaila etxekoek.

Bigarren laurdenean baina, gauzak apur bat aldatu ziren. Askok kostatu zitzaizkien saskiratzeak lortzea eta etxekoen jokoa asko jaitsi zen. Egia da, normalean aulkitxoan egoten direnei minutu asko eman zizkiela Zurutu-



AINZANE AGIRRE

Baloia igotzeko zailtasunak izan zituzten amaieran Arrasatekoek.

tuzak, eta taldeak igarri egin zuten hori. Hala ere, abantaila mantentzea lortu zuten.

Hirugarren laurdena oso berdindua izan zen. Bi taldeetan hutsak izan ziren nagusi, eta hutsak-huts etxekoen abantailak berdindu jarraitu zuen.

Azken laurdenean, hasieran behintzat, etxekoak oso ondo ibili ziren, nahiz eta pibot titularrak

segituan faltaz josi. Gamarra saskiratzen hasi zen, eta Iruñakoek ezin izan zuten etxekoen eraso gelditu. Abantaila handitzen joan zen. Baina azken bost minutuetan etxekoek huts asko egin zituzten. Kanpokoak kantxa oso presioa egiten hasi ziren, eta mondragoetarrak ez ziren baloia igotzeko gauza izan. Hala ere, azkenean erraz irabazi zuten.

Jipoi ederra jaso zuten oñatiarrek

ALOÑA MENDI
29-61
CAF

Aloña Mendi | Aramburu, Irizar, Choan (4), Etxebarria (2), Ugarte, Blanco (1), Arregi (12), Marquez (9) eta Murua.

CAF | Funes (4), Mendizabal (2), Garcia, Iturbe (7), Eceizabarrena (15), Vaz (10), Corbacho, Rivera (6), Azurmendi, Martinez (16), Huici (1) eta La Rosa.

Laurdenetako emaitzak: Lehen laurdena: 13-9. Bigarren laurdena: 20-29. Hirugarren laurdena: 29-49. Laugarren laurdena: 29-61.

Jasone Zabala

Zapatuan Zubikoako kiroldegian partidu eskasa ikusi ahal izan genuen, Aloña Mendi eta Beasaino CAF taldeen artean. Etxeko taldea hasieratik hasi zen gaizki jokatzeko. Lehen laurdena berdintasun gehien izan zuena izan zen. Bi taldeak intentsitatez hasi ziren jokatzeko, baina saskiratzerako orduan ez zuten asmatzen. Defentsan nahiko ondo aritu zen etxeko taldea baina erasoan eskas. Bigarren laurdenean, Aloñako entrenatzaileari tekniko bat adierazi zion epaileak, adierazi gabe utzi zuen falta bat protestatu ondoren. Bigarren laurdenean, 7 puntu baino ez



AINZANE AGIRRE

Partidu benetan txarra jokatu zuten Aloñakoek.

zituzten sartu etxekoek. Beasaino joko hobea zen.

BIGARRIN ZATIA ERE GAIZKI Bigarren zatian, ez zuten erreakzionatu etxekoek, kanpotarren

intentsitateak gora egin zuen, eta markagailuan abantaila hartu zuten. Laugarren laurdenean, etxekoek ez zuten saskiratzerik lortu. Azkenean porrota Aloñakoendako.

• 2. MAILA NAZIONALA

Garaipen garrantzitsua lortu zuten eskoriatzarrek

UNIV. PUBLICA NAVARRA
58-62
ESKORIATZA

Asteleheneko Goienerria

Atzo Nafarroan jokatu zuten eskoriatzarrek Universidad Publica de Navarra taldearen aurka. Partidu gogorra izan zen, sailkapenean parean daudelako, biak jaitsiera-ko postuetatik aldentu nahian.

Ederki hasi ziren eskoriatzarrek, eta 5 eta 16ko partziala egin zieten nafarrei. Etxekoek zonakako defentsa egin zuten ia partidu guztian zehar. Atsedenaldira, 35nako berdinketarekin heldu ziren.

BIGARRIN ZATIAN ONDO

Azken 20 minutuak berdintasun handikoak izan ziren. Azken minutu eta erdian jaurtiketa libreak bota zituzten bi taldeek, behin eta berriz faltak egiten zituztelako. Azkenean, lau puntugatik izan bazen ere, garaipena ekarri zuten Nafarroa aldetik Fernando Rasoren neskek.

Datorren astean, Portugaleteko Pinturas Esteco taldea izango dute bisitari. Partidu honekin jaitsiera faseko bigarren itzulia hasiko dute, eta oso garrantzitsua izango da partidu hau irabaztea, joaneko partiduan hirugatik galdu zuten eta.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA
Mugarri Alkesa-Consmetal 93-82

SENIOR MAILAKO GIPIZKOAKO TXAPELKETA
Irun Basket-Candy BKE 80-77
Zarautz-Aloña Mendi 30-46

GAZTE MAILAKO GIPIZKOAKO TXAPELKETA
Mugarri Alkesa-Barcelo Bid. 45-55
Aloña Mendi-BKL / Caf 29-64
Gros Xake-Araneta 64-44

KADETE MAILA
Hernani-Mugarri Alkesa 59-64
Cafes Aitona-Lacor 48-36
STL Etxaun-Aloña Mendi 61-45

NESKEN BIGARRIN MAILA
Univ. Publ. Nav.-Eskoriatza 58-62

GAZTE NESKAK
Aloña Mendi-San Patricio A 35-61
Aldapeta-Eskoriatza 55-34

KADETE NESKAK
Bera Bera-Bergara 59-58
Antigua Luberrri B-Eskoriatza 56-21

Pilota

• ESKUZ BANAKAKO TXAPELKETA

Goitik behera menperatu zuen Olaizolak etxarriarra

Etxarriko pilotaria ezinean ibili zen partidu hasieratik; goizuetarra aldiz, bikain

LASA III

7-22

OLAIZOLA I

Iraupena: 45 minutu inguru.

Tanteoa: 1-6, 2-6, 2-9, 2-13, 2-16, 3-18, 3-20, 5-20, 6-21, 7-22.

Jasone Zabala

Partidu motza ikusi genuen atzo Bergaran. Lasa III.a eta Olaizola I.a aritu ziren nor baino nor.

Hasieratik hasi zen agintzen Asier, eta abantaila berehala hartu zuen markagailuan. Hasierako pilotakadetan, 5 tantoren aldea hartu zuen, eta handik aurrera alde horrek gora egin zuen, beti goizuetarraren alde. Olaizola sakean ederki aritu zen, eta behin eta berriz Lasari atzeko koadroetan ematen zizkion lanak. Etxarriarrak, behin eta berriz defendatu behar izan zuen airez, eta lanak izan zituen pilota eramaterako orduan. Asier, Lasaren ezintasuna ikusita, konfiantzaz bete zen, eta 6. koadrotik ere dekada bikainak egin zituen. Lasa pilota horietara abiatu ere ez zen egin. Zaleek urruti ikusten zituzten Etxarriko atzelariak Bengoetxearen sakez sartu zizkion 11 tanto haiek. Lasa ezezagun bat izan zen atzokoa. Olaizolak markagailuan zuen abantaila nahi-



AINTZANE AGIRRE

Partidu bikaina jokatu zuen Olaizolak, eta aurrera jarraituko du txapelketan.

ko handia zen; hala eta guztiz ere, Lasak tanto pare bat egin zituen, eta bere pilota ateratzeko aukera izan zuen. Baina Olaizolak ez zuen arazorik izan Lasak ateratako pilotarekin, eta Lasak ez

zekien nola asmatu. Azken tantoetan, peloteo gogorrean aritu ziren biak, eta azken aldera borrokarako gogo gehiago erakutsi zuen Lasak. Baina Olaizolaren joko onak zarpian utzi zuen etxarriarra, eta beraz, txapelketatik kanpo. Olaizolak Irujo izango du hurrengo kanporaketan aurkari.

Partidu hasieratik nekatuta azaldu zen Lasa eta ezin izan zien aurre egin Olaizolaren dejadei

BESTE BI PARTIDU

Beste bi partidu ere izan ziren, ondorengo emaitzekin: Titin III.a eta Eulate 22, Xala eta Galartza VI.a 16; eta, Galartza V.a eta Zubieta 18, Chafee eta Auxkin 10.

• MENDI LASTERKETAK

ALOÑARA IGOERA AURKEZTU DUTE

Egubakoitzean aurkeztu zuten Aloñara Lehen Igoera mendi lasterketa proba. Aurkezle lanetan Jose Mendiola, Iban Isasti eta Santi Mendiola izan ziren. Dagoeneko 150 korrikalarik eman dute izena, eta ikuskizuna segurua izango da maiatzaren 1ean Euskadiko kopako lehen proba honetan.



AINTZANE AGIRRE

Labur

Eskoriatzako areto futboleko taldeak mailaz igoko du

Atzo Lagun Onak taldeari 9-3 irabazi eta gero, Eskoriatzako areto futboleko taldeak mailaz igotzea lortu du matematikoki. Iñaki Corralen mutilek partidu ona jokatu zuten eta erraz irabazi zuten azkeneko. Talde honen meritua ikaragarria da, denboraldi honetan Euskadiko ligara igo berria zelako. Datorren denboraldian Lehen maila nazionalen jokatu du.

• GIPUZKOAKO HIRU TXIRLO BOLO TXAPELKETA



AINTZANE AGIRRE

GAZTEAK DOTORE ARITU ZIREN ELGETAN

Zapatuan Elgetako bolatokian ospatu zen Gipuzkoako hiru txirlo bolo Txapelketaren 3. jardunaldia. Guztira, 65 bolari aritu ziren. Debagoienetik jende gutxi aurkeztu zen. Lehenengo postuan, Eibariko Jose Manuel Perez sailkatu zen; bigarren, 11 urte dituen Julen Ibarluzea elgoibartar gaztea, eta hirugarren, 8 urteko Jon Ibarluzea; anaiak azkeneko biak. Laugarren jardunaldia datorren zapatuan ospatuko da, Soralezeko San Andres auzoan, arratsaldeko 4.30tan.

• "OÑATI HIRIA SARIA 2005" KARATE TXAPELKETA



JASONE ZABALA

DEBAGOIENEKO GAZTEAK FIN TXAPELKETAN

Zapatuan ospatu zen Oñatiko Zubikoa kiroldegian, "Oñati hiria saria 2005" karate txapelketa. Bergara, Oñati eta Eibarko elkarrekin 100 gaztetxo inguruk hartu zuten parte. Bertan, aurre benjaminetatik infantiletarainoko gazteak bi espezialitatean aritu ziren: kata eta kumite. Bergara eta Oñatiko gaztetxoak ederki aritu ziren maila guztietan, sailkapen orokorrean lehen postuetan gelditu ziren, eta beraien trebeziak ondo baino hobeto erakutsi zituzten.

Juan Carlos Davila Arrasateko Monte tabernako tabernaria izateaz gain, saskibaloia entrenatzailea ere bada, eta lagun batzuekin batera emakumezkoen

saskibaloia txapelketa antolatu berri du maiatzaren 15erako Arrasaten. Penatuta dago emakumeen kirolak indar asko galdu duelako bailaran; horregatik, txapelketa

honen bidez apur bat laguntzea du helburu. Lehen mailako taldeak ekarriko dituzte, eta kirol hori maite dutenek aukera aparta izango dute saskibaloiaz gozatzeko.

JUAN CARLOS DAVILA |

TABERNARIA ETA SASKIBALOI ENTRENATZAILEA

"Gure asmoa emakumeen kirolari bultzada txiki bat ematea da"

Jokin Etxebarria

Nesken saskibaloia txapelketa antolatu duzue maiatzaren 15erako. Zer egongo da ikusgai?

Zuk esan bezala maiatzaren 15ean izango da txapelketa, eta Iturripeko kiroldegian jokatu da. Bertan, emakumezko lehen maila nazionalako onenetakoak diren lau taldek parte hartuko dute: At. San Sebastian, Getxo, Gasteizko Abaroa Saskibaloia Elkarte eta Logroñoko Las Gaudas, hain zuzen ere.

Goizez eta arratsaldez jokatuko dira partiduak. Goizean final-erdiak, eta arratsaldean finala.

Saskibaloia txapelketa hori antolatzerako orduan arazoren bat izan duzue, ezta?

Betiko arazoak egon dira. Baina gehien bat, Arrasateko herrian inplikazio falta sumatu dugu, eta horrek mindu gaitu apur bat. Gure asmoa, txapelketa honekin emakumezkoen kirolari bultzada txiki bat ematea izan da. Eskerrak beti egon diren herriko enpresa eta saltokiak laguntzeko prest, eta eurei esker txapelketa aurrera doa.

Nola otu zitzaizuen horrelako txapelketa bat antolatzea?

Berez, beste bi mutilekin jarduten dut entrenatzen Gasteizen. Behin, bertatik bueltan, hitz egiten hasi ginen polita izango litzatekeela horrelako txapelketa bat herrian egitea, Arrasateko neskek ikus dezaten mutilak ez direla saskibaloian jokatu dezaketena bakarrik. Gutxiak gutxiak antolatzea lortu dugu.

Bestalde, Basati tabernakoe-kin hitz egin nuen, eurei ere ideia gustatu zitzaion, eta euren laguntza osoa daukagu. Horrela erakutsi nahi dugu tabernak ez direla gazteak mozkozteko lekuak bakarrik, herriko kirolari lagundu nahi dioten lekuak ere badirela.

Pena da emakumezkoen saskibaloia Eskoriatzan bakarrik egotea, ezta?

Bai, pena da. Gainera, kontuan edukita gure bailaran saskibaloia zaletasun handia dagoela, eta ikusita Hondarribia-Irun nesken taldea nolako irudia ematen dabilen, neskak geroz eta gehiago dabilta saskibaloian begia jartzen. Eta pena da Arrasate bezalako herri batek, nesken saskibaloia tradizioa galdu izana.

Txapelketa honen bidez kontzientzietan eragin gura genuke, berriz ere nesken saskibaloia talde bat agertzeko. Eta beste kirol batzuetan agertzen bada nesken talde bat, orduan ere pozik egongo gara, gaur egun, futbolearen baino ez baitago neska talderik Arrasaten.

Hurrengo urteetan antolatzeko asmotan zaudete?

Lehenik eta behin aurten nola irteten den ikusi beharra dago. Baina dena uste bezala irtenez gero, uste dut aurtengoa lehen txapelketa izango dela, baina ez azkena.

Zergatik aukeratu duzue maiatzaren 15a?

Lehenik eta behin libre zegoen egun bakarrenetarikoa zelako, eta bigarrenik, taldeei ere ondo etorriko zaielako igoera faserako entrenamendu gisa.

Gure ibarreko norbait egongo da?

Jokatzen ez, baina bai entrenatzen. Izan ere, Gasteizko Abaroa taldeko entrenatzailea, Javier Zurbano, Arrasatekoa da.

Zenbat pertsona espero dituzue?

Taldeetatik 15 pertsona inguru etorriko dira, beraz guztira 60 izango dira, baina lagundu gaituzten guztiei gonbita pasako diegu.

Gainera, Arrasate eta inguru guztiari eskatu nahi diot Iturripera gerturatzeko, saskibaloia egun on bat ikusi nahi badute, behintzat. Sorpresaren bat edo beste ere izango dugu, gainera.



Juan Carlos Davilak Monte tabernan lan egiten du, baina saskibaloia beti buruan dauka.

JOKIN ETXEBARRIA

GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK 2005-2006

Ate Irekiko Jardunaldiak

2005-04-20 17:30etan 5001 Ikasgela

2005-05-18 17:30etan 5001 Ikasgela

EGUNA:
ORDUA:
TOKIA:

agorosabel@eps.mondragon.edu
Tel: 943 79 47 00

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
www.eps.mondragon.edu

ESKEINTZA AKADEMIKOA

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoa
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizate bidezko Ekoizpena
- Sistema Informatikoen Administrazioa
- Industri Ekipoaren Mantentzea

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Cristina Sanchezek kontzertu polita egin zuen Arrasateko Musikaldiaren barruan | 25
- Gaur hasi eta hilaren 25era arte kontzertu ugari Bergaran Musika Astearen barruan | 26

Eskualdeko kondairak kontatuko ditu Imanol Biainek Aretxabaletan | 26

PACO IBAÑEZ ESKORIATZAN

ASPALDIKO PARTEZ EUSKAL HERRIAN | KONZERTU NOSTALGIKOA INONDIK ERE JARRAITZAILE ASKORENDAKO

Ibañez: "Fatxek alde egiteko abesten nuen lehen. Orain, sekula ez itzultzeko"

71 urte ditu, baina etenaldirik gabeko bi ordu pasatxoko kontzertua eman zuen

Ibañezek ez du gaztetan ikasitako euskara ahaztu. Gure hizkuntzan ere abestu zuen Eskoriatzan

Non. Eskoriatzako kiroldegian.
Zenbat jende. 600 bat lagun.
Iraupena. Bi ordu pasatxo.

Larraitz Zeberio

Euskaraz abestu zuen lehen kanta Paco Ibañezek. Xabier Letek itzulitako Cesare Pavesearen *Heriotzaren begiak* aukeratu zuen. "Zendu berri den nire anaiari, Imanoli eta Victoria de los Angelesi eskaini nahi diet lehen abestia", esan zuen kantautoreak. "Eta Aita Santuarendako malko bakar bat ere ez".

Betiko moduan jarraitzen du abeslari valentziarrak. Agertu bezain laster publikoak eskaini zion txalo zaparradak argi utzi zuen lehen unetik hura musika kontzertu soil bat baino zerbait gehiago zela.

Paco Ibañezek jarraitzaile asko ditu gurean ere eta oso sutuak gainera. Belaunaldi bat

baino gehiago bildu zen zapatu gauean Eskoriatzako kiroldegian. Nagusiek garai zail eta gogorak gogoratu zituzten Ibañezen kantuekin. Gazteak, berriz, denuntzia-kantuaren azken mitotako bat aurrez aurre ezagutzeko irrikaz ikusi genituen.

Urteen joan etorriak bere eragina izan du abeslariaren ahots eta indarrean, baina ez du bere izaera salatzailea pitin bat ere

"Aita Santuaren hileta ospakizuna ikuskizun lotsagarria izan da, onartezina"

"Euskaraz ez dakien euskalduna japonieraz hitz egiten duen txinatarra da, jende osatugabea"



AINZANE AGIRRE

Paco Ibañez bakarrik aritu zen Eskoriatzako agertokian. Gitarra bat nahikoa izan zuen publikoa bereganatzeko.

ahuldu. Garai gogorrenetan beza-la, musika arma moduan erabiltzen du mota guztietako injustiziak zein neurririk gabeko boterea salatzen.

KANTU ZIRRARAGARRIAK
Gongora, Quevedo, Lorca, Neruda, Goitisol, Machado, Alberti eta Brassens poeten kantuak jo zituen. Zirrara handienak eragin

zituzten kantuak *Andaluces de Jaén*, *A galopar* eta *Soldadito boliviano* izan ziren. Jendeak gogoz lagundu zuen kantautorea, bai kantuz bai txaloekin.

• HORRELA IKUSI DUTE KONZERTUA



JOSE M^a |
ESKORIATZA

"Sentsibiltate handiko gizona da. Gaztetako garaiak gogoratu ditut gaurkoan".



IÑAKI ETA LURDES |
ADUNA

Iñaki Pacoren lehengusua da eta bere kontzertu mordoa ikusi ditu. "Gaurkoa polita izan da. Publikoak asko lagun du. Gezurra badirudi ere elkartzen garenean ez da batere kantuzalea".



DIEGO |
ZUMARRAGA

"Ez nuen uste Ibañezek hainbeste jende mugitzen zuenik. Kontzertu ona izan da".




M^a ASUN ETA M^a ASUN |
BERGARA

Ama-alabak dira eta autografo bila zebiltzan. "Ahotsa galdu du, baina handia da oso. Askotan lokartu dut alaba bere kantuekin. Motza egin zaigu kontzertua. Oroitzapen asko izan dira".



JARRAITZAILE TALDE BAT PACOREKIN |
ARRASATE

"Kontzertua hasi aurretik pozik geunden gu. Garai zaharrek gogoratu ditugu, urte gogorrek guretzako. Entzun nahi genituenak esan dizkigu, baina kantu batzuk jotzea ahaztu zaio. Gau osoa egongo ginateke. Duen adinerako, berriz, oso ondo ikusi dugu. Oroimen bikaina dauka".



MUSIKALDIA | HARPA KONTZERTUA ARRASATEN

Gutxitan izaten dugu harpa entzuteko aukera. Barikuan, ordea, Cristina Sanchez harpa jotzaile bilbotarra Arrasateko parroikian izan zen eta kontzertua eskaini zuen Apirileko I. Musikaldiaren barruan. Aita Madina eta J. Guridiren piezak jo zituen. | L.Z.



ABESBATZA | BARTZELONAKO GRACIA, OÑATIN

Orfeo Gracienc abesbatzak mendea egin duela ospatzeko ekitaldian, kontzertua egin zuen Oñatiko Agustindarren elizan. Kontzertu polita izan zen. 175 bat lagun elkartu zen Kataluniako folklorea oinarri izan zuen kontzertua entzutera. | A.G.



KONTZERTUA | BERGARAKO GALWAY'S IRISH PUB-AREN LEHEN URTEMUGA

Asstrio taldeak 'As soon as possible' diskoa aurkeztu zuen Bergarako irlandarrean

A.G.

Lehenengo urteurrena ospatu zuen zapatuan Bergarako San Martin plazan dagoen Galway's irish pub-ak. Urtemuga ospatzeko, Asstrio taldearen kontzertua antolatu zuen eta jende nahikotxo gerturatu zen kontzertuak iraun zuen bitartean taldearen emanaldiarekin gozatzera.

'AS SOON AS POSSIBLE' DISKOA AURKEZTU ZUTEN

Tabernaren ertz bat egokitu eta hantxe egin zuen emanaldia Asstrio, ondo zaindutako lookarekin: alkandora beltza eta gorbita gorria, besteak beste. Bartzelonan finkatutako hirukotea da eta groove eta funk-jazz doinuez bete zuten taberna. Gainera, Gaztelupeko Hotsak diskoetxeare-

kin atera berri dute diskoa, *As soon as possible*, hain justu ere, eta horixe aurkeztu zuten zapatuko emanaldian.

Asstrio taldeak kantari eta talde oso ezagunen bertsioak ere egin dituzte emanaldietan, Beatles, Steve Wonder edo Duke Ellington-enak, besteak beste, eta halako bertsio bat edo beste ere egin zuten Bergarako irlandarrean.



50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN


Jentilak, Elurzuloak,
Kontrabandisten bideak,
Pozalagua, Baltzola,
Aixerrotak...

Tokian tokiko ohitura, kultura,
istorio eta altxorak ezagutzeko
50 mendi buelta.



egunero ibilbide bat DOAN BERRIAREKIN

Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

Datozen egunotan izango dira Liburuaren Eguneko ekintza nagusiak

Aramaioko gazte asanbladak liburu azoka antolatu du, eta Bergarako liburutegiak plazan emango du zerbitzua

Leire Kortabarria

Aurrera doaz Nazioarteko Liburuaren Egunaren inguruko ospakizunak. Datozen egunotan, bi ekintzatar joateko gonbita dago. Alde batetik, Arrasateko Udal Liburutegiak ikuskizun bat ekarriko du hilaren 21ean, eguna: *Itzalak* errezi-taldi eta musika ikuskizuna, hain zuzen ere. Monterronen izango da emanaldia, 19:30ean.

Ikuskizunaren ardatza Iban Zalduaren *Itzalak* (Erein, 2004) liburuaren irakurraldia da, musikaz lagunduta. Egileak berak irakurriko ditu pasartekok, eta Jabier Muguruzak eta Roberto Yabenek musikaz babestuko dute. Fikzioa eta fan-

tasia uztartzen dituzte liburu osatzen duten 37 kontakizun laburrek.

IPUINAK, AZOKA...

Oñatiko Udal Liburutegiak aurkeztu berri du Liburuaren Egunerako bere egitaraua. Datorren eguaztenean, hilak 20, ipuin kontakizuna egingo du Kontukantoi taldeak (argibide gehiago, euren webgunean, www.kontukantoi.com). Bi emanaldi egingo dituzte: 6-8 urte bitarteko umeendako, 17:30ean, eta helduendako, 19:30ean. Bi saioak euskaraz izango dira.

Bestetik, Aramaioko gazte asanbladak liburu azoka antolatu du hilaren 23rako, eta dei egiten diete herritarrei liburuak horretarako emateko, udaletxean edo kultura etxean.

Azkenik, Bergarako liburutegia udaletxeko arkupean izango da hilaren 22an eta 23an, urtero egiten duten bezala. Hilaren 22an, Iñaki Martiarena Mattin ilustratzaileak bere lana erakutsiko du, hori ere udaletxeko arkupean, 17:30ean; ohiko zerbitzurik ez da izango arratsalde horretan.

Hitzordua



MUSIKA ASTEAK KONTZERTUZ BETEKO DITU BERGARAKO TXOKOAK |

Gaur, hilak 18, hasi eta apirilaren 25era arte, egunero hainbat emanaldi

Gaur, astelehena, hasi eta hilaren 25 arte, egunero musika emanaldi asko egingo dira Bergaran, hango Musika Eskolak antolatu duen I. Musika Astearen eskutik. Hilaren 18tik 21era bitartean izango dira egun beteak: arratsaldero, bost edo sei bat emanaldi egingo dira musika eskolan, Miguel

Altuna institutuan, Zabalotegin, herriko zenbait elizatan edo baita kalerik kale ere. Musika Eskolako taldeek eta zenbait talde gonbidatuek joko dute. Denetarik musika-tresnen kontzertuez gain, beste ekintza batzuk ere izango dira: ipuin musikatua edo *Carmen* operaren bideoa, adibidez.

Labur


Eskoriatzako jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu dute

Eskoriatzako Udalak deitu du lehiaketa, eta edozeinek parte har dezake 21 x 10 zentimetroko kartelekin. Derrigorreko testua honakoa da: *2005eko San Pedro jaiak Eskoriatza. Ekainak 28, 29 eta 30, uztailak 1.*

Lanak udaletxean edo kultura etxean entregatu behar dira maiatzaren 20a baino lehen. Irabazleari 300 euro emango dizkio, eta irudia jaietako egitarau-liburuxkaren azalean agertuko da. Udalak lanen erakusketa egingo du, egoki iritziz gero.

Imanol Galfarsorok identitatearen gaineko 'ezohiko saiakera' idatzi du

Imanol Galfarsoro, Erresuma Batuan bizi den aretxabaletarrak *Kultura eta identitate erbestertuak* (Pamiela) kaleratu du, Joxe Azurmendiren esanetan "benetan ezohikoa" dena. "Euskal saiakera gehiengoaren probintzialismotik haratago doa", esan zuen.



Eskualdeko kondairak kontatuko ditu Imanol Biainek Aretxabaletan

Debagoieneko kondairak kontatuko ditu Imanol Biain oñatiarrak Aretxabaletan. Emanaldia egunean, hilaren 21ean, izango da udaletxe zaharrean, 19:00etan, Loramendi euskara elkarteak antolatuta. Eskualdeko mitologiak, pertsonaiak, lehengo ipuin eta kontakizunetaz... oso jantzia dago Biain. Helduendako emanaldia da.

Egunero dago kultura edo dibulgazio hitzordu bat Loramendiren eskutik. Datozen asteotan, hartzen gaineko hitzaldi bat eta Jon Arretxeren liburu aurkezpena izango dira, adibidez.

ZINEMA |

• *Descubriendo Nunca Jamás* filma emango dute Arrasaten

Amaia antzokian emango dute film hori gaur, astelehena, 20:30ean. Gaur ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

• *Los chicos del coro* filma gaur, astelehena

Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan emango dute film hori, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

• *Resistencia* filmaren emanaldia izango da Elgetan Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia kafe antzokian, 21:30ean.

• *María, llena eres de gracia*, Oñatiko zineklubean

Eguenean, hilak 14, emango dute film hori Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan, 20:00etan. 4 euro da sarrera.

• *Caminar sobre las aguas* filma izango da Arrasaten Eguenean, hilak 14, emango dute film hori zineklub saioan. Amaia antzokian izango da, 20:30ean.

ERAKUSKETAK |

• Irakurtzearen gozamenaren gaineko erakusketa

El placer de leer delako argazki erakusketa dago Arrasaten, Monterron jauregian, 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 orduetartean, Nazioarteko Liburuaren Egunaren inguruan.

• Elisabet Egurenen margo erakusketa, Arrasaten

Elisabet Eguren margolari eibartarraren erakusketa egongo da hilaren 24ra bitartean Iturriotz kaleko Harresi aretoan, astegunetan 18:00-20:00 eta zapatu eta jaiegunetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

• Pello Alberdi elgetarraren margolan erakusketa

Arrasaten du erakusketa, Arregi markoztatze dendan. Apiril osoan dago zabalik.

• Eba Ramirez argazkilariaren lanak, Bergaran ikusgai

Eba Ramirez argazkilariaren lanen erakusketa dago Bergarako kultura etxean. Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00.

• Jone Telleriaren erakusketa Bergarako Nahikarin

Jone Telleriaren margolan erakusketa dago Nahikari tabernan apiril osoan. 13 margolanek eta ikus-kutxa batek osatzen dute.

• Zuriñe Gredillaren egurrez egindako lanak, Elgetan

Zuriñe Gredillak egurrez egindako lanen erakusketa dago Espaloia antzokian. Hilaren 23ra bitartean dago zabalik.

• Tren zaharraren gaineko argazkiak, Eskoriatzan

Tren zaharraren gaineko argazki erakusketa egongo da Inkernu tabernan hilaren 23ra bitartean.

• Antzinako farmaziaren gaineko erakusketa

Antzinako farmaziaren gaineko erakusketa dago Eskoriatzako Ibarraundi museoan hilaren 24ra bitartean. Ordutegia 16:00-19:00 da.

• Sahararen inguruko argazki erakusketa dago Oñatin

Apirilaren 22ra bitartean dago kultura etxean. Errekalde Herri Eskolak antolatu du.

LEHIAKETAK |

• Bergara Hiria argazki lehiaketa deitu dute

30 x 40 cm-ko kartulinatan aurkeztu behar dira argazkiak; atzealdean, egilearen datuak. Zuri-beltzeko eta koloretako argazkiak hartuko dituzte, gehienez ere bakoitzak lau. Bergarako Udaletxera eraman behar dira, edo posta zertifikatuz kultura etxera bidali maiatzaren 4a baino lehen. 440 euro banatuko dituzte lau saritan. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 30 90 telefonora.

• VI. Legazpi Hiria argazki lehiaketa deitu dute

Siderurgia arloko ondare industrialaren gaineko argazki-ekin parte hartu behar da. Lanak Legazpiko 4. Posta Lehiatilara bidali behar dira. 660 euro banatuko dituzte saritan kategorian bakoitzean. Argiziola lehiaketarako sailkatzeko baliagarria da sariketa hori.

nolako ikasketak halako lana



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

GOIERRIko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK

ARRASATEko Campusa

943 71 21 92

- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
- Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

GOIERRIko Campusa

943 88 00 62

- apirilak 28, 17:30etan.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIko Campusa

Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziatura.
 - Finantza Zuzendaritza.
 - Merkataritza Zuzendaritza.
 - Erakundeen Kudeaketa.

BIDASOko Campusa

- Enpresa Zientzietan Diplomatura.
 - Nazioarteko Merkataritza.
 - Enpresa Logistika eta Garraioa.

JARDUNALDI IREKIAK

OÑATIko Campusa

943 71 80 09

- apirilak 20, 18:00etan.
- maiatzak 12, 18:00etan.

BIDASOko Campusa

943 63 91 29

- maiatzak 7, 10:00etatik 13:00etara.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAko Campusa

Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
 - Hizkuntzen Psikopedagogia.
 - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
 - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
 - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK

ESKORIATZAko Campusa

943 71 41 57

- apirilak 21, 18:00etan.
- maiatzak 19, 18:00etan.

inskripzio epea
zabalik

Zorion agurrak



ARRASATE
Irune Loza
Apirilaren 13an, 8 urte. Zorionak! Aita, ama, amama eta osaba.



ARRASATE
Amets Ormaetxea
Apirilaren 14an, 8 urte. Zorionak! Amaren, aitaren eta lbairen partetik.



ARRASATE
Koldo Uribarren
Hilaren 16an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak, Ander, Nerea eta Aitor.



ARRASATE
Goio Arana
Apirilaren 17an urteak. Zorionak eta urte askotarako! Lankideak.



ARRASATE
Iker Barrena
Apirilaren 18an, 17 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE
Imanol Soriano
Apirilaren 20an 25 urte. Zorionak eta urte askotarako! Lankideak.



ARRASATE
Leire Hernandez
Apirilaren 23an, 16 urte. Zorionak eta urete askotarako! Etxekoak.



ARRASATE
Roberto Sancho
Apirilaren 24an urtebetetzea. Zorionak Moro! Lagunak.



ARRASATE
Eneritz Garasa
Apirilaren 24an urtebetetzea. Zorionak Ene! Lagunak.



BERGARA
Ariana Sasieta
Martxoaren 23an, 7 urte. Zorionak. Parisen ospatutako urtebetetze berezia.



BERGARA
Urko Ruiz
Apirilaren 15ean, urteak. Zorionak potxolo eta muxu bat! Etxekoak



BERGARA
Mireia Larrañaga
Apirilaren 21an urteak. Zorionak eta urte askotarako! Lankideak.



OÑATI
Iosu Moreno
Apirilaren 21an, 7 urte. Zorionak! Etxekoak, aiton-amonak eta Eider.



OÑATI
Iokin Moreno
Apirilaren 21ean, 7 urte. Zorionak! Etxekoak, aiton-amonak eta Eider.



OÑATI
Ander Murillo
Apirilaren 22an, 4 urte. Zorionak! Etxekoak, aiton-amonak eta Eider.



ARETXABALETA
Amaqoia Lasagabaster
Apirilaren 19an, urtebetetzea. Zorionak! Lankideak.



ARETXABALETA
Jon Ugalde
Apirilaren 19an, urtebete. Zorionak! Osaba-izebak, eta bereziki Maitane.



ESKORIATZA
Nagore Arriolabengoa
Apirilaren 16an, 2 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.



ANTZUOLA
Aratz Aretxaga
Apirilaren 13an, 2 urte. Urte askotarako! Familiakoak, batez ere, Beñat.



ANTZUOLA
Marijo Deogracias
Apirilaren 19an urtebetetzea. Urte askotarako! Lankideak.



Jaiotakoak



Julen Lanzos Gastañaga
Aretxabaleta • 3,540 Kg.
Apirilak 11. Gurasoak: Josu eta Amaia (Aretxabaleta). Argazkian: Julen jaioberrria bapo lo.



June Beitia Beitia
Oñati • 3,620 Kg.
Apirilak 12. Gurasoak: Jose Antonio eta Juana (Oñati). Argazkian: June goxo-goxo lo egiten.



Irati Garitano Rubio
Antzuola • 3,300 Kg.
Apirilak 13. Gurasoak: Julen (Antzuola) eta Birjinia (Bergara). Argazkian: Irati amaren besoetan.



Xabier Gabilondo Catazan
Aretxabaleta • 3,545 Kg.
Apirilak 13. Gurasoak: Aitor (Aretxabaleta) eta Beatriz (Oñati). Argazkian: Xabier tartekoen besoetan.



Paule Zumarraga Nuñez
Elorrio • 3,800 Kg.
Apirilak 13. Gurasoak: Joseba (Arrasate) eta Miriam (Durango). Argazkian: Amarekin.



June Urzelai Regidor
Eskoriatza • 3,420 Kg.
Apirilak 13. Gurasoak: Mikel (Arrasate) eta Puri (Eskoriatza). Argazkian: Mila izeko-amonarekin.



Ainhoa Gallastegi
Visitacion
Bergara • 3,220 Kg.
Apirilak 14. Gurasoak: Asier eta Maribi (Bergara). Argazkian: Rosita amamagaz.



Beñat Cobos Oruna
Arrasate • 2,800 Kg.
Apirilak 14. Gurasoak: Javi eta Eider (Arrasate). Argazkian: Beñat Carlos aitonarekin.




Anne Biain Navarro
Oñati • 3,855 Kg.
Apirilak 15. Gurasoak: Aitor eta Elisabeth (Oñati). Argazkian: Ana Maria amamarekin.




Amaur Sancho Raso
Eskoriatza • 3,180 Kg.
Apirilak 15. Gurasoak: Miguel (Bergara) eta Lourdes (Eskoriatza). Argazkian: Izeba Aranekin.



Enara Mujika Carrillo
Bergara • 2,450 Kg.
Apirilak 15. Gurasoak: Aitzol eta Paloma (Bergara). Argazkian: Enara gurasoekin.



Andrea Garcia Pajuela
Arrasate • 2,730 Kg.
Apirilak 16. Gurasoak: Oskar (Arrasate) eta Osane (Eskoriatza). Argazkian: Andrea bapo lo.



Ander Etxabe Uribarren
Arrasate • 3,250 Kg.
Apirilak 17. Gurasoak: Iker eta Lierni (Arrasate). Argazkian: Ander amaren besoetan.

sms mezuak

- Zorionak Leire. Bergarako larrosak, laster 28!
- Zorionak Marijo. 32 eta primera. Ala ez? Lankideen partez!
- Iratxe tia buena, noiz egingo dostazu kaso?.
- Zorionak Ander eta Mikel. Noizko ezkontza? Soineko luzea jantzi gura dot!



Baita SMS bidez ere!

Bidali mezua:
gnkzorian [laga tartea] [mezua] 7744 zenbakira.

Hurrengo
Asteleheneko Goienkaria-n irakurri ahal izango du berak zure mezua...
SMSaren kostua 0,90 euro+BEZA

Hildakoak

- Emiliana Ubera Garaizabal**
Oñati, apirilaren 14an. 99 urte.
- Oihana Torrealdei Lopez**
Arrasate, apirilaren 15ean. 27 urte.
- Fernando Azkargorta Zelaia**
Bergara, apirilaren 15ean. 55 urte.
- Barbara Gantxegi Lizarralde**
Bergara, apirilaren 15ean. 92 urte.
- Isidora Lizarralde Alberdi**
Bergara, apirilaren 16an. 97 urte.

Arrasateko Hiper Eroskiko distribuzio berria



Mila esker zuen konfiantzagatik



EROSKI

Erosten jakin

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

Hauteskundeen biharamona

Hauteskundeen hurrengo egunean Legebiltzarrerako hauteskundeen errepasso zabala egingo dute Igo Autobusera saioan. Ibarreko emaitzen berri emango dute eta bailarako politikarien balorazioak jasoko dituzte. Hainbat aditurekin ere izango dira.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:00

Hauteskundeen gaineko irakurketa, politikariek

Domekako hauteskundeen emaitzak kontuan hartuta, herriko ordezkari politikariek irakurketa egingo dute: EAJko Andoni Gartzia, EBko Karmelo Perezek, Ereitten taldeko Marijo Altubek eta Eako ordezkari batek.

Loiola Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Oñatiko Txantxiku Ikastolaren jai

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00

Einsteinen heriotzaren 50. urtemuga berbagai

Radio Euskadi


FM 98.2

'Bulevar' | 11:00

Tratu txarren eta drogen arteko harremana

Gaur telebistan

GOITB



'Harmailatik' Ibarreko kirolak GOITB-n

21:30 Julen Iriondok aurkezten duen saioan asteburuak kirol kontuetan eman duena errepassatuko dute.

13:45 Emisio hasiera.
13:50 Marrazki bizidunak: *Sherezade*. (Egubakoitzean emandakoaren erreplikapena).
14:10 Marrazki bizidunak: *Lazkao Txiki*.
14:15 Berriak aurrerapena.
14:30 Ilunpean.
15:00 Eguzki lore.
15:30 Berriak aurrerapena.
15:45 *Klip@*. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. Hainbat musika estilo.
19:30 Emisio hasiera.
19:35 *Gaurkoak*. Albisteak.
19:45 *Klip@*.
20:00 *Berriak*. Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia.
20:30 Marrazki bizidunak.
21:00 Baneki. Mikel Aranburuk aurkezten duen gazteei zuzendutako telebista saioa.
21:30 Itzulia 2005. Joan den astean Oñatin amaitu zen Euskal Herriko Itzulia, eta horren gaineko saio berezia eskainiko dute.
22:00 Albistegia.
22:30 Harmailatik. Ibarreko kirolak Julen Iriondok kazetariaren eskutik.
23:00 *Gaurkoak*.
23:45 Emisio amaiera.

ETB 1



'Goenkale'-n, Maria Luisa saminduta dago

21:45 Maria Luisa familia manipulaziotan dabil? Bestalde, Nekane eta Danelek eztabaidatu egiten dute, baina...

07:05 Tik Tak circus.
07:30 Betizu. *Doug, Hirukiak, Doremiren magia, Kong eta Sorginen aspertua*.
09:20 E-Klipse@.
09:45 Elkartasunaren bideak.
10:10 Bidaide.
11:55 Bertatik Bertara. Estitxu Fernandezek aurkeztuta.
12:25 Hitzetik hortzera.
13:05 Barne barne. *Legutiano*.
13:35 Betizu. *Burdin Ahoren marrazki bizidunak*.
14:00 Gaur Eguna.
14:40 Postdata.
14:45 Eguraldia.
15:55 Hasiberriak.
16:20 Bidaide. *Costa Ricako krokodilo hiltzaileak eta National Geographic*.
17:00 Sustraiak.
17:30 E-Klipse@.
18:00 Iparraldearen orena.
18:05 Betizu.
20:20 Eguraldia.
20:28 Gaur Eguna.
21:05 Bertatik Bertara.
21:45 Goenkale.
22:25 Sorginen laratza.
23:55 Eguna iruditan.
00:00 Postdata.
00:05 Teknopolis.
00:35 Sautrela.
01:05 Egi bidean.
01:15 Bakarrik edo...

ETB 2



Hauteskundeen gaineko saio berezia

21:55 Hainbat adituk, hauteskundeen gaineko emaitzen analisia eta balorazioa egingo dute saio berezian.

07:10 Del país de los vascos.
07:30 Rutas de solidaridad. *Colombia: Los pueblos vigilantes*.
08:05 Embrujada.
09:00 Forum.
09:30 El Punto.
10:10 Matrimonio con hijos.
11:05 Stargate. *Recuerdo*.
12:10 Se ha escrito un crimen. *Testigo de la defensa eta Los hábitos no mueren*.
13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.
14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
15:55 Eguraldia. Ana Urutiarekin.
16:00 Pásalo. Adela Gonzalez eta Iñaki Lopezekin.
18:25 Siempre cine. Zehaztu bariko filma.
20:20 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrearekin.
21:50 Eguraldia.
21:55 Debate especial.
00:00 El día en imágenes.
00:05 Documental.
01:05 La zona muerta. *Presión en la cabina eta El hombre que no existía*.
02:45 Esta es mi gente.
03:20 Date el bote.

TVE 1




'Ana y los siete' saioan, mamuak etxean

22:00 Espirituak ei daude etxean, hori uste dute anaia bikiek. Eta hori erakusteko neurriak hartuko dituzte.

06:00 Canal 24 horas.
07:00 Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin.
09:00 Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin.
10:15 Saber vivir.
11:15 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
14:00 Informativo territorial.
14:30 Corazón de primavera. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.
15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escariorekin.
15:55 El tiempo.
16:00 Amor real.
17:30 Obsesión.
18:30 Cuéntame cómo pasó. *La guerra del fin del mundo*.
20:05 Gente.
21:00 Telediario 2.
21:55 El tiempo.
22:00 Ana y los siete. *A veces oigo voces*. Anaia bikiek uste dute etxean mamu bat daukatela, eta psikofoniak egitea da euren asmoa.
23:30 59 segundos. Mamen Mendizabalekin.
01:30 Telediario 3.
02:00 Los vigilantes de la playa. Kapitulu berria.

La 2



'Saber y ganar' saioan, Einstein abiapuntu

22:00 50 urte pasa dira grabitatearen legea asmatu zuen Albert Einstein hil zela; saio berezia egingo dute.

07:15 That's english.
07:30 Los Lunnis. *Tiroloco, Aventuras en pañales eta Tweenies*.
09:30 Aquí hay trabajo.
10:00 Tveducativa: la aventura del saber.
11:00 La botica de la abuela.
11:15 España.es
13:00 Los Lunnis. *Digimon, Arthur, eta La vaca Connie*.
15:15 Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin.
15:30 Tenis. Torneo Conde Godó. Bartzelonatik zuzenean.
17:00 Frontera Límite.
17:30 Los Lunnis.
19:15 Padres en apuros.
19:30 Pueblo de Dios.
20:00 Informativo territorial.
20:30 Previo UEFA Champions League.
21:00 Vivir con Mr. Cooper.
21:30 Miradas 2.
21:55 Sorteo de la Bonoloto.
22:00 La 2 Noticias.
22:30 El tiempo.
22:45 En portada. *Las dos Bolivias*.
23:30 Estravagario.
00:30 Metropolis.
01:00 Radio3.
01:30 A ciencia cierta.
02:00 Superhombre.
02:50 Teledeporte.

Antena 3



'Los Simpson' saioan, Marge eta Homer...

14:00 Gaurko bi kapituluetan Marge eta Homerren harremana kolokan ikusiko dugu, arrazoi ezberdinengatik.

06:00 Las noticias de la mañana.
09:00 Ruedo Ibérico.
10:00 En buenas manos.
10:45 Cada día.
14:00 Los Simpson. *Un tranvía llamado Marge*. Margek antzezlan bat egin behar du, eta Homerrek ez du inongo interesik jartzen. *Coronel Homer*. Homer abeslari eder batendako manager lanetan hasten da, eta Margek arriskuan ikusten du bere senarrarekin duen harremana.
15:00 Noticias 1.
15:45 La buena onda de la tarde. Alicia Senovillarekin.
18:00 Números locos.
19:00 El diario de Patricia.
20:15 Pasapalabra.
21:00 Noticias 2.
21:45 El peliulón. *Billy Elliot*. Zuzendaria: Stephen Daldry. 2000. Antzezleak: Julie Walters, Jamie Bell, Jamie Draven. Billy Elliot bere aitarekin bizi da, Ingalaterrako iparraldean. Familia ados ez bada ere, Billyk balet klasikoa egin gura du.
00:20 7 días, 7 noches. Teresa Viejoekin.
02:00 Noticias 3.
02:25 Televenta.
05:00 Errepikap.

Tele 5



Epaimahaikide bat hilda 'CSI' saioan

22:00 Grissom-ek eta bere taldekoek gainontzeko epaimahaikideak ikeretzen dituzte, eztabaidatu izan dituzte-eta.

06:30 Informativos Telecinco matinal.
09:10 La mirada crítica. Vicente Vallesek.
10:45 El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute.
14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparroekin.
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcazarrekin.
16:30 La casa de tu vida. Laburpena.
17:00 A tu lado. Emma García eta Felix Alvarezekin.
19:35 Alla tú. Jesus Vazquezekin.
20:30 Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustín Hernández.
21:30 Pecado original.
22:00 C.S.I. Las Vegas. *Miembros furiosos de un jurado*.
23:00 CSI Miami. *Vacaciones de primavera*.
00:00 Crónicas Marcianas. Javier Sardak aurkeztuta.
02:20 Informativos Telecinco. Alvaro Rivasekin.
02:45 Madrugada de cine. *Acción oculta*.

Astean GOITBn

Astelehena, 18



'Harmailatik' | 21:30

Besteak beste, preferente maila berbagai

Asteburu garrantzitsua izan da ibarreko hiru talderendako, preferente mailan atzeko postuetan daudelako, eta poliki-poliki Liga Txapelketa aurrera doalako.

Martitzena, 19




'Lehiaketa' | 21:00

'Baneki' lehiaketarekin Port Aventura-ra

Debagoieneko neska-mutilek Port Aventura-ra joateko aukera dute *Baneki* lehiaketa saioari esker. Txapelidunizateko baina, saioko galderei zuzen erantzun behar.

Eguaztena, 20



'Añamendietan' | 22:30

Pirinioetan barrena, Peio eta bere lagunekin

Peio Ruiz Cabestanyk eta espedizio lagunek Pirinioetan egin daituzkeen kirol aukeren berri emango digute. Horrekin batera, Pirinioak hobeto ezagutuko ditugu.

Eguena, 21




'Berriak' | 21:30, 23:00

Ibarreko informazio puntuala, albistegietan

Ibarrean gertatutako guztiaren berri izango duzue GOITBko albistegietan. Eguerdian albistegi aurrerapena izango duzue, eta gauean, Deiane Arrietak aurkeztuko du albistegia.

Egubakoitza, 22



'Ilunpean' | 21:00, 22:30

Javier Retegiri egingo diote elkarrizketa

Eusko Ikaskuntzako presidenten Javier Retegirik erantzun behar du Oihana Elortza kazetariak prestatutako galderei, *Ilunpean* saioan.

1. bat gehiago izan
2. nire umea ekarri
3. itxaropena



1. lana
2. nire lagunak
3. planeta



1. enplegu iraunkorra
2. etxebizitza
3. familia



1. erantzunak
2. elkarriketa
3. aurrera



1. ongizatea
2. maialen
3. bakea



Ilusioz begiratzen diogu denok etorkizunari.

Mila esker zuen konfiantzagatik

Elkarrekin egingo dugu





Hamarrekoa

JABIER RETEGI | EUSKO IKASKUNTZAKO PRESIDENTEA

"Amari eman diot soldata ezkondu arte eta berak eman dit dirua beharretarako"

Oihana Elortza

1. Nola aldatu da Bergara mutiko koskorra zinetik hona? Ikaragarri aldatu da. Gogoratzen dut oraindik zenbat jolas egiten genuen auzoan, Ozaetan.

2. Zer jolas ziren? Urtaro bakoitzean jolas ezberdinak genituen. Sasoi berria heldu ahala aldatu egiten genituen jolasak: mendian, auzoan bertan, errekan... bakarrik ez, igeri egiten ere Ozaetako errekan ikasi nuen, umetan.

3. Eta zer moduzko ikaslea zinen? Askok gustatu izan zait beti ikastea eta gustura joaten nintzen eskolara, nazionalak. Gainera, oso irakasle onak izan nituen.

4. Zuk ere kantuan ikasi zenituen Espainiako ibaiak? Ez, baina duela urte batzuk Japonian izan nintzen eta oraindik hango irla batzuen izenak gogoratzen nituen, mutikotan eskolan ikasitakoak. Orain beste izen batzuk dituzte irla horiek eta nire ondoan zeuden japoniarrek barre egin zuten, aspaldi ez zituztelako entzun izen zahar horiek.

5. Irakasle sartu zinen Arrasateko Eskola Politeknikoan eta urtebetera zuzendari zinen. Aurretik Bergarako zerrajeran egin nuen lana, elektrizitate lanetan lehen dabil eta laminazioko ardura duna gero.

6. Gogoratzen duzu zertan edo non gastatu zenuen lehen soldata? Amari eman nion oso osorik. Ezkondu arte eman diot soldata amari eta berak ematen zidan dirua behar nuenaren arabera.

7. Beti izan zara ausarta lanbide eta postu berriak onartzeko? Ardura handiarekin hartu ditut denak, baina nigan konfiantza dutela ikustean ausarta izan naiz beti, bai.

8. Hezkuntza Sailean lehenengo, eta Industria sailburu handik hamar urtera. Askok aldatu zen lana egiteko era Jaurilaritzan? Etxenikerekin batera, hezkuntza arloa antolatzen aritu nintzen. Hitz egin da konpondu genituen gauza asko, ez zegoen hain burokratizatua eta. Industria sailburu izan nintzenean, berriz, industri birmoldaketaren garaia izan zen, garai gogorra hura ere.



OIHANA ELORTZA

Erretiratuta dago, 68 urte ditu, baina perretxiko bila edo herriko obren zaindari egin ordez, Eusko Ikaskuntzarako lana egiten du. Patxadaz, hala ere, lanak bera menperatu gabe. Sei biloba ditu eta ikaragarri gustatzen zaio haiekin jolastea. Bergarako da eta Arrasaten bizi da ezkondu zenetik. Hezkuntzan, ikerketan eta industrian egin du lana, oso gustukoak dituen arloetan.

9. Lehen kanpotik bezala ikusten duzu orain barrutik Eusko Ikaskuntza? Makina bat lan egin du Eusko Ikaskuntzak eta hasierako filosofiarik eutsiz, erronka berriak jarri ditugu etorkizunerako.

10. Zelan duzu ortua? Joan zara aspaldian? Ez unerik oparoen. Negu gogorra izan dugu. Txikia da baina urtero izaten ditut porruak eta tomateak, behintzat.



Biharamuna

Maria Agirre

Erromatik Lantziegora

Huteskondeek utzitako zenbaki dantzarekin batera, gaurtik aurrera Erromak berriro bereganatuko du ikusmira, Aita Santua aukeratzeko hasiko baitira. **Damaso Zuzo** aretxabaletarra etorri zait burura, aspalditik Italiako hiriburuan bizi den karmeldarra. Ez Erromatik bakarrik. Duela urte ugari **Carolinen** irakaslea izan zen Damaso. Eskolak eman zituzten Monakoko printzesa ederrari, eta uste dut, nahikoa lan izan zuela Carolinarekin. Izan ere, irakasle lanetan Monakon ere urte asko egindakoa da aretxabaletarra. Hori guztia osaba **Antonio Untzuetak** kontatuko da. Hura ere Vaticanoan ibilitakoa da, baina Monakon ere bai, karmeldarrek bertan komentua baitute.

Debagoiendarrak munduan. Aurreko egunean, MCCko nazioarteko arduraduna, **Jesus Mari Errasti** ikusi nuen telebistaz. Errusian zen, Moskun, hango merkatuko aukerak aztertzen. Txina eta Errusia, enpresarien ikusmiran. **Alberto Urretxo** musikariak ere salto handia eman du. Tronboi-jotzaile arrasatearra Bilboko Orkestra Sinfonikoan hasi da, bakarlarik gisa gainera. AEBetan ibili izan da ikasten, baina etxera egin du tronboia eskuetan. Gazteak proiektu mordoak du eskuartean, eta ilusioz beterik ageri da. Hala izango zen **Oihana Torrealde** andereñoaren kasuan ere. Baina bat-batean, proiektu eta ilusio guztiak bide bazterrean geratu dira. Lehengo egunean **Iratxe** andereño arrasatearra ikusi nuen telebistaz; hura ere Lantziegon ari da. Doluminak guztiei.



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE

AROTZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak



ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

